



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**INKLUSIOAREN LANKETA  
"FROZEN" FILMA OINARRI  
HARTUTA:  
LEHEN HEZKUNTZARAKO  
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

EGILEA: Ortiz Garmendia, Ander.

ZUZENDARIA: Bizkarra Morales, Maria Teresa.

**2017/2018 ikasturtea**

## LABURPENA

Lan honen helburua, inklusioaren inguruko unitate didaktiko bat egitea da. Honekin, ikasleek inklusioaren berri izatea, bazterkeria gaitzestea eta gai honen arloen inguruko kontzientziazioa eta hausnarketa egitea lortu nahi da.

Horretarako, lehenik eta behin, marko teoriko moduan, inklusioaren xehetasun orokorrak zehaztuko ditugu; inklusioaren esanahia, bilakaera historikoa, bazterkeriaren kausa edo egoerak eta hauek konpontzeko egin beharrak.

Ondoren, informazio orokorra jaso ostean, inklusioaren inguruko unitate didaktiko bat proposatuko dugu, lau saiotakoa eta Lehen Hezkuntza hirugarren zikloko umeei bideratua. Unitate didaktiko hau egiteko, umeei asko gustatzen zaizkien Disney-eko filma bat (*Frozen*) aukeratuko dugu jardueren ardatz gisa.

Azkenik, saioak praktiketara eraman eta gero, saio horietan gertatutako emaitzak deskribatuko ditugu eta emaitza horien ondorioak atera.

Esku hartze honen bidez, Lehen Hezkuntza hirugarren zikloko edozein ikasleen lan egiteko giroa eta atxikimendua hobetzen ahaleginduko gara, berezitasunak alde batera uzteko eta denak bat izan behar dugunaren ideia izateko.

# AURKIBIDEA

1. Sarrera eta justifikazioa	5
2. Marko teorikoa	6
2.1.    Inklusioa vs Integrazioa	6
2.2.    Bazterkeriaren kausak eta egoerak	8
2.3.    Inklusioaren bilakaera historian zehar	10
2.4.    Inklusioa bermatzeko aspektuak	14
3. Helburuak	17
4. Metodoa	17
4.1.    Proposamen didaktikoa	18
4.2.    Helburuak	19
4.3.    Parte hartzaileak	19
4.4.    Unitate didaktikoa	19
4.4.1. Gaitasunak	20
4.4.2. Edukiak	20
4.4.3. Programaketa eta metodologia	23
4.4.4. Ebaluazioa	26
5. Emaitzak	30
5.1.    Lehenengo saioa	29
5.2.    Bigarren saioa	30
5.3.    Hirugarren eta laugarren saioa	31
6. Ondorioak	32
6.1.    Aurreiritziak	32
6.2.    Genero bazterkeria	33

6.3. Taldeko atxikipen eza	34
6.4. Teoria alde batetik eta errealitatea bestetik	35
6.5. Bazterkeria identifikazioa eta ondorioen analisia	35
6.6. Bazterkeriaren konponbidea eta inklusioa	37
7. Bibliografia	38
8. Eranskinak	41
8.1. Saioak (ariketa fitxa)	41

# 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Inklusioa eta honen gabezia, bazterkeria, aspaldidanik giroan dagoen auzien artean dago eta beharbada azken urteetan askoz ere gehiago nabarmendu da. Arreta puntua bilakatu da bai gizartean zein eskola giroan. Honen arrazoi nagusienetariko bat azken urteetan izan diren gizarte mugimenduak izan daitezke, hau da, gaur egungo gizartean kultura edo herrialde ezberdinetako jende ugari topatu dezakegu eta beraz, populazioa askoz ere anitzagoa eta konplexuagoa da. Errealitate hau eskoletara hedatu da eta bertan ere jatorri ezberdinetako ikasleak aurkitzen dira, honek dakarren egokitzearekin (Garcia, 2008).

Hori dela eta, gaur egun ez dago pertsona eredu bat, gizartea oso anitza da eta beraz, bizikidetzara arauak inoiz baino beharrezkoagoak dira. Bizikidetzara arau horiek inklusio moduan ezagutzen ditugu, mota guztietako bazterkeriari kontra egiten dioten prozesu edo ekintzak (Diez, 2007).

Hala ere, bazterkeriaz aritzerakoan ez gara bakarrik kultura ezberdintasunek ekarri ditzakeen bazterkeriez ari, beste hamaika arrazoi izan daitezke, hala nola, pertsonaren izaera, generoa, adina, urritasuna, ingurua etab. Pertsona bat alde batera uzten duen edozein ezaugarri. Beraz, XXI. mendeko gizartea eraldaketaren gizartea izan behar du, ezberdintasun sozialen kanporatzearena eta inklusioaren gizartea. Gaur egungo gizarteak ezin ditu gauzak utzi dauden bezala eta arazoei iskin egin.

Lan horretan eskolak funtzio handia du, mundu juxtu eta anitza izan dezagun. Izan ere, dibertsitatea edo ezaugarri anitzak dituen ikasle taldea talde indartsua da, ikaskuntza aberasgarriagoa izatea eragin diezagukeena (Rios, 2005). Eskola izan behar da inklusioaren edo bazterkeria ezaren oinarria, denek denek ezaugarri anitzak onartu, errespetatu eta erabilgarri egiten dituen, ondoren gizarteko mentalitate okerra aldatzeko.

Gure unitate didaktikoa zein lan honen nahia horixe bera izango da, ikasleek bazterkeria gaitzetsiz inklusioaren inguruko kontzientzia hartzea eta dituzten aurreiritzi okerrak behingoz ezabatzea.

Askotan, ordea, zailtasun handiak izaten dira inklusibitatea gauzatzeko, ez baita batere erraza izaten oso markatuta dauden uste eta sinesteak aldatzea, gizarteak, familiek eta inguruak asko eragiten baitute. Batetik, jende askok ez du informaziorik inklusioaren inguruan, oso arrotza egiten zaion hitza da eta honek aurreiritzi okerrak eta ideia negatiboak eragiten ditu eta ez dio onurarik egiten inklusioari. Zorionez, eskoletan geroz eta gehiago entzuten den terminoa da eta geroz eta gehiago aplikatzen dena.

Bestetik, bestelako arazoak ere sortzen dira prozesu hau martxan jartzeko, hala nola, eskolaren gaitasun eza errekurtsio ekonomiko zein pertsonalen aldetik, formazio eskasa edo

material falta eta baita ikasleen jarrera negatiboa. Dena izan daiteke oztopo inklusioaren prozesu konplexu hau aurrera eramateko. Horregatik, arazoak direnak direla ere, ikasle guztien eskubideak bermatzeagatik ahalegin berezi bat egin beharra dago, dibertsitatea onartu, diskriminazioa gaitzetsi eta denak taldeko partaide sentiarazteko (Rios, 2005).

Horregatik, inklusioa gaur egungo eskola globalizatu honen erronka bilakatu behar da. Eskolaren bitartez gizarte anitz honen oinarri pertsonalak garatzearen funtzioa izan behar du, kontzientziario bultzatuz, eskola talde sozial anitzen arteko harremana ziurtatzen duen espazio bakarrenetarikoa baita (Santos, Cernada eta Lorenzo, 2014).


## **2. MARKO TEORIKOA**

### **2.1. INKLUSIOA VS INTEGRAZIOA:**

Inklusioarekin erlazionatutako hitzak agertzen direnean kontu handiz ibili behar dugu, ez baita berdina hitz bat edo bestea erabiltzea. Hau batez ere, inklusioa eta integrazioa hitzekin geratzen da, nahiz eta berdina iruditu ez dira gauza bera eta jende askok oker erabiltzen ditu. Definizio asko aurki ditzakegu inklusioa deskribatzerakoan, autoreen ikuspuntuaren arabera modu batera edo bestera definituko dute, baina denek edukiko dute oinarri bera. Hona hemen horietako batzuk:

Hasteko, *Educativok* (2007) dio, gizaki bakoitzaren ezberdintasun guztiak onartu (ohitura, kultura, adina, ezjakintasuna, hizkuntza etab.) eta errespetatzen dituen eskubidea dela. Aukera eta eskubide berdintasunean oinarritu behar garela ere badio. *Cumellasek* (2010) hezkuntzaren ikuspegitik zerrendatzen ditu inklusioaren funtsak, hala nola, berdintasuna, hezkuntzarako eskubidea, errespetua, onarpen soziala eta talde lana. *Aipatutakoaren* haritik, inklusioak ikasle guztiak, ezberdintasunak ezberdintasun, gizarteratzea du helburu, denek denen arteko berezitasunak ulertuz. Eskola da lehen urratsa horretarako, norberaren autoestima eta segurtasuna garatzeko (*Tierra eta Castillo, 2010*). *Unesco* (2009) honako definizio honetan oinarritzen da; Inklusioa ez da ez teknika, ezta metodo bat ere, gizartea ulertzeko modu bat da, guztiek gizartean berdintasunean aritzeko eskubidea da.

*Azkenik, Garciak* (2008), pertsona guztiak batu, etiketak baztertu, bakoitzaren beharrak kontuan hartu eta oztopoak konpentsatzean oinarritzen dela dio, dibertsitatea uneoro gidatuz. Inklusioarekin erlazioa duen beste hitza integrazioa da, nahiz eta berdina dela iruditu, alde nabariak daude bien artean. Bien arteko alde hori azpiko irudi hauetan dago ikusgai:



### 1. Irudia: Integrazioa vs inklusioa eta bazterkeria/segregazioa (Bravo, 2015)

Integrazioaren irudi honek askotan gertatzen den errealitatea irudikatzen du, hau da, klase barruan integratuta dagoen jendea da baina talde handi horretan azpi taldeak osatzen dira eta beraien babesean egoten dira uneoro gainontzekoekin ia erlaziorik ez izanik (Blanco, 1999). Inklusioa aldiz, egoera ideala dela esan genezake eta gure helburua izan behar duena. Kasu honetan, denak talde barruan daude denekin erlazioan eta elkar laguntzan aritzen dira, taldetxoak osatu gabe (Blanco, 1999).

Ezberdintasunak agerian geratzen dira irudian, baina are gehiago dira zehatz-mehatz aztertzen baditugu. 1. taula honetan bi terminoen alde garrantzitsuenak (Alemany, 2009; Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010).

Lehenengo irudi horretan agertzen diren beste bi termino bazterkeria eta segregazioa dira. Hauetan gertatzen den egoera askoz ere okerragoa da, ez baitago imintziorik integrazioa edo inklusioan sartzeko. Guztiz taldetik at daude, bai bakoitza bere aldetik (bazterkeria) edo kanpoko talde moduan (segregazioa). Egoera hauek dira konpondu behar direnak inklusioa bermatzeko (Blanco, 1999; Cumellas, 2010).

**1. Taula: Inklusioa vs integrazioa (Alemany, 2009; Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010)**

INTEGRAZIOA	INKLUSIOA
Behar bereziak behar dituen ikaslearengan jarri arreta eta bere posibilitateetan zentratu	Ikasle guztiengan jarri arreta denen arteko berdintasuna bilatu nahian
Ohiko eskolan aritu baina heziketa bereziko gelan gehienbat	Ohiko eskolan aritu ohiko tutorearekin
Banakakoaren zailtasunei konponbidea eman beste ikasleen ikaskuntza prozesuan eragin gabe	Arazoari konponbidea eman ikasle guztien artean eta denen arteko ikaskuntza aberastuz
Arazodun ikaslea egokitu eskolara	Irakasleak egokitu gela eta ingurua arazodun ikasleari
Klase bereziak jaso	Ohiko klasean eman moldaketa txiki batzuekin beharrezkoa denean
Metodologia eta ekintza ezberdinak	Ikasle guztiek parte hartu ekintza eta jarduera guztietan
Ebaluazioa espezialistak egin	Ebaluazioa tutoreak
Errekurtso ezberdinak erabili	Ikasle guztiek errekurtso berdinak erabili
Jardueren gehiengoa elkarrekintza sozialik gabe	Modu kooperatiboan lan egin elkarrekintza soziala bermatuz
Denbora gehiena bakarka aritzen denez gizartean aritzeko zailtasunak	Ohiko klasekideekin dagoenez gizartean askoz ere errazago aritu
Homogeneotasuna	Dibertsitatea
Lehiakortasuna eta berdintasunean oinarritu	Kooperazio, solidaritate eta ekitatean oinarritu

**2.2. BAZTERKERIAREN KAUSAK ETA EGOERAK**

Bazterkeria edo inklusio eza arazo handia izan daiteke garaiz detektatu eta esku hartzen ez bada. Aldi berean, garrantzitsua da bazterkeria jasaten ari den ikaslearen bertsioa jakitea eta berarekin etengabe kontaktuan egotea bai eta beste ikasleen laguntza ere ezinbestekoa da. Horregatik, bazterkeriaren kausak jakitea garrantzitsua da konponbidea lehenbailehen emateko egoera horri. Bazterkeriaren kausak asko izan daitezke, batzuk aipatzen ahaleginduko gara: Lehenik eta behin, burura etortzen zaigun bazterkeriaren lehen irudia *gaitasun bereziak* dituzten ikasleena da. Ikasle hauek dituzten berezko zailtasunengatik askotan ezin dute besteen erritmoa jarraitu eta horrek bazterrean geratzea eragin diezaieke.



Ume askorentzat gaitasun anitzak edo bereziak edukitzeagatik bakarrik errefusa eta bazterkeria arrazoia izan liteke, aurre iritzi eta uste faltsuak jota (Lazaro, 2013).

Hala ere, zailtasunen barruan denetik topa dezakegu, ohiko bizitza aurrera eraman dezaketena edo laguntza gehigarria behar dutena. Hori dela eta, hainbat zailtasun mota egon daitezke, behar espezifikoak deitzen direnak. Batetik, urritasun motorra dutenak daude, mugimendu aldetik arazoak dituztenak (goiko gorputz adarrekoak, beheko gorputz adarrekoak, tetraplegiak, distrofiak...), bestetik, urritasun sentsorialak dituztenak (entzumena edo ikusmena) eta baita urritasun kognitiboa edo adimen-urritasuna dutenak (down sindromea, garun paralisia, autismoa...). Gainera, ikaskuntza arazoak ere identifika ditzakegu (TDH, TDA, dislexiak, disgrafiak, afasiak...) eta nola ez, beste motatako gaixotasunak dituztenak, hala nola, osasun arazoak; obesitatea, epilepsia, bizkarrezur arazoak, diabetesa, adizioa, etab. (Cumellas, 2010; Diez, 2007; Educativo, 2007).

Hauen arazoak eta oztopoak hainbat izan daitezke; koordinazioa arazoak, komunikazio arazoak, adimen zailtasunak, autoestima arazoak edo arazo emozionalak esaterako. Arazo hauek, sozialki beste ikasleekin zailtasunak izatea eragin dezakete, norbanakoaren barnean sortzen diren beldurrak direla eta. Hala ere, ez du zertan baina ikasle mota hauek askoz ere zaugarriak dira arazo sozialak jasateko (Cumellas, 2010; Educativo, 2007).

Bigarrenik, beste kausa bat *kultura* ezberdintasuna da. Gaur egun dagoen globalizazioa medio, klasean kultura asko nahasten dira eta honek ere arazoak sor ditzake. Hau batez ere, gutxiengo etnien artean gertatzen da, atzeritar iritsi berrien artean, talde errefuxiatuen artean edo erlijio ezberdina dutenen artean. Askotan, beste kulturaren inguruan ezer jakin gabe, etiketak edo estigma negatiboak jartzen dira eta honek dakar ikasle hauen urruntasuna edo bazterkeria (Jimenez, 2008; Jimenez eta Taberner, 2009; Lazaro, 2013). Bestetik eta aurrekoarekin lotuta, bazterkeria ere gerta daiteke beste hainbat arrazoigatik, hala nola, pentsamendu ezberdinak izateagatik (ideologia politikoa), generoagatik (neska-mutil) edo adinagatik, aurrekariak izateagatik, etab. (Jimenez, 2008; Jimenez eta Taberner, 2009).

Klaseetan gehien nabaritzen dena, generoarengatik bazterkeria da, hau da, orokorrean neskak alde batetik joaten dira eta mutilak bestetik, elkar gurutzatu nahiko ez balute bezala, askotan lotsagatik. Ondoren, hezkuntzaren kausen bidez datozen urruntasunak ere ezagunak dira, hots, errepikatuak, porrot eskolarra medio, hizkuntza arazoak, ezagutza eskasia (Jimenez eta Taberner, 2009; Jimenez, 2008; Lazaro, 2013). Gero, norberak ere badu zeresana auzi horretan, izan ere, duzun izaerak zertxobait markatuko du taldeko atxikipena. Ez da berdina izango pertsona ireki baten erraztasuna talde batean atxikitzeko edo pertsona isil eta lotsati batena (Jimenez, 2008; Jimenez eta Taberner, 2009).

Amaitzeko, kanpoko eragin sozialek ere eragiten dute bazterkerian eta honek berriz ere sortzen duen estigmatizazioan. Bizi garen ingurunea arazoduna bada asko eragin lezake edo familiako giroa nahasia bada edo hauen babesa ez badago are gehiago. Azken finean, ikasleek etxean ikusten dutena egiteko joera izaten dute (Lazaro, 2013). Eskolak zentzu horretan zeresan handia du eta ikasleen gain eragin handia izateko aukera du, ikasle bakoitza baloratuz talde sentimendua atxikitzeko helburuarekin (Lopez-Velez, 2018).

Bazterkeriaren kausa dena delakoa dela ere, nabari da sortzen diren arazoak irudi, aurreiritzi edo estigmatizazio okerren ondorioa direla. Hau aldatzea oso zaila da, baina eskolak funtzio horretan bere aletxo utzi dezake eta errealitate hau aldatu. Benetako errealitatea zein den ikusarazi, ulertu eta egoeraren zein bakoitzaren ezaugarri anitzen berri jakin ostean inklusioa errazagoa izango da (Diez, 2007).

### 2.3. INKLUSIOAREN BILAKAERA HISTORIAN ZEHAR

Garai batetik hona hezkuntzak inklusibitatearen ideia horretan izan duen bilakaera nabarmena izan da. Hamarkadaz hamarkada hezkuntzaren ikuspegia hobetzen joan da, ez gaude emakume eta gizonezkoak banatzen zituzten garaian ezta urritasunen bat zuten pertsonak baztertzen zituzten garaian ere. Hala ere, oraindik ere erabateko bizikidetzat batetik urrun xamar gaude.

Gaur egungo hezkuntzak eskola inklusiboari lotuta egon behar du, ezberdintasunak ezberdintasun denentzako hezkuntza. Izan ere, betidanik existitu dira baztertuak edo gizartearengandik gutxietsiak. Etiketa jartzen hasi ziren pertsona hauei eta “normalak” ez zirela esaten, horrek gizartean aurreiritzi faltsuak errotzea ekarri zuen bazterkerian eraginez. Gizartearen ideia hau aldatze bidean lan ugari egin da historian zehar, hezkuntzatik hasita.

XV. mendean zehar gizartean ez zegoen ia zantzurik inklusibitatearen inguruan (oraindik ez zen terminoa ezagutzen), bazterkeria ekiditeko zeuden ekintzak oso urriak eta ezohikoak ziren. Horien artean garrantzitsuenetako bat txiroentzako aterpetxeak sortu zirela, hauen barnean urritasun motorra eta adimen urritasuna zutenak edo langabetuak kontsideratzen zirenak zeuden. Halaber, 1409. urtean Valentzian ospitale psikiatrikoa sortu zen birgizarteratze funtzioarekin. Valentzia bertan ere Murillo apaizak ezindu mentalei lana eskaintzen zien bufoi moduan (Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010).

XVI. mendean oraindik ere bazterkeria nabaria zen eta nahiz eta hauen soluziorako geroz eta ekintza gehiago izan oso urriak ziren. Esaterako, urritasuna zuten pertsonak asistentzia elkarrekin bizitzeko aukera eman zien edo urritasun pairatzen zuten pertsonen lan

konkretu bat erakusteko aukera ematea eta horrela gizartean txertatzea (Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010).

XVI. mende honetan hasi ziren hezkuntzarekin lotutako bazterkeriaren aurkako keinu xumeak. Garai hartan, hezkuntza eskubidea jende burges eta boteredunak zuten soilik, gainontzeko populazioa (baserritar, emakume, langile xume...) baztertuta zegoen. Keinua xume horien artean, entzumen arazoak zituztenei hezkuntza aukera eskaini zitzaiela izan zen, Logroñon, bertan idazten, irakurtzen, marrazten eta komunikatzen ikasten zuten. Hauek ordea, populaziotik aparteko barnetegi batzuetan zeuden (Parrilla, 2002). Bestetik, urte batzuk aurrerago, hezkuntza metodo berezi bat erabiltzen hasi ziren entzumen arazoak zituztenekin. Lehenik idazten irakatsi eta bitartean hatzarekin letrak adierazi (alfabeto bimanuala) ondoren zegokion objektuarekin identifikatuz. Honekin lotuta, XVII. mendean ekintza aipagarriena Zaragozan izan zen, Bonetek gorrentzat garai hartan metodo berezi bat asmatu zuen, keinuak erabiliz irakastea hezkuntza arloan komunikatzeko (alfabeto manuala) (Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010).

XIX. mendera arte oraindik ere gorrekin eta mutuekin zentratuta jarraitzen zuten, honela, 1800. urtean entzumen arazoak zituzten umeak eskoletan sartzen hasi ziren baina hauek gela berezi batzuetan, hau da, segregazio egoeran gainontzeko ikasleekin nahastu gabe. Segregazio egoera berdinean zeuden emakumeak, kultura minorizatuko pertsonak eta klase sozial baxuko jendea. Gaur egun, atzerakoia izango litzatekeen erabakia da hau, gela berezi batzuetan banatzea baina garai haietan garrantzi handiko keinua izan zen. Antzeko zerbait pasa zen 1802. urtean gormutuekin, eskola propioak sortu baitziren (Alonso eta Araoz, 2011; Parrilla, 2002).

Gaur egunera gerturatzen garen heinean neurriak ere gehiago ziren eta askoz ere garrantzitsuagoak. Horregatik, XX. mendean sartzean aurrerapausoa handia izan zen, batez ere lege aldetik. Hauek neurri garrantzitsuetako batzuk:

- 1970 hamarkada arte, zailtasunen bat zuten ikasleek eskola segregatuetan ikasten zuten, izan ere, garai hartan klasea zenbat eta homogeneoagoa izan ikaskuntza prozesurako askoz hobea zela zioten. Gainera, adimen urritasuna zutenak ez zuten hezkuntza eskubiderik eta baztertu egiten zituzten (Toboso, Ferreira, Díaz, Fernández-Cid, Villa eta Concha, 2013).
- 1970an "*Ley General de Educacion*" delakoa. Gizaki guztiei, berezitasunak berezitasun, hezkuntza prozesua jasotzeko eskubidea bermatzen zuen legea sortu zen. Lege honek urritasuna zuten pertsonak ohiko ikastetxeetan sartzea suposatzen zuen aurrerakuntza nabaria izanik. Helburua pertsona guztiak gizarteratzea zen, klase

sozialak, kultura edo generoa begiratu gabe. Hala ere, ikastetxean behar berezidun gela aparte bat zuten oraindik eta ez zen guztiz integrazioa aurrera eraman, ikastetxeak ez zeudelako prest instalakuntza, material edo profesional aldetik (Alonso eta Araoz, 2011; Parrilla, 2002).

- 1975an *“Instituto Nacional de Educacion Especial”* delakoa. Behar berezidunak bazterrean ez geratzeko elkarte garrantzitsua izan zena sortu zen (Toboso et al., 2013).
- 1978an *“Plan Nacional de Educacion Especial”* delakoa. Irakaskuntzaren indibidualizazioa, eskolan “integrazioa” bermatzen zuena eta ikasleen heterogeneotasuna aintzat hartzen zuena (Cumellas, 2010; Tierra eta Castillo, 2010).
- 1980 hamarkadan aldaketa handia izan zen, batik bat aldaketa sozio-politiko nabarmena egon zelako, konstituzioaren sorkuntza tartean. Bertan 49. artikuluan, zailtasunak zituzten pertsonen prebentzio, tratamendu, errehabilitazio eta integrazio politika aurrera emango zela jartzen zuen. Politika hau 1982ko *“Integracion Social de los Minusvalidos”* legeak berretsia zuen. Honek zioen arazodun ikaslea ohiko ikastetxean integratua izango zela beste ikasleekin batera, beharrezkoa zuen laguntza tarteko. Laguntza hori, profesional gehigarriak, psikologoak, irakasleei formazioak etab. ziren (Cumellas, 2010; Darretxe, Gaintza eta Etxaniz, 2016).

Legea pixkanaka garatzen joan zen heziketa berezia eskola sistemaren parte izanik eta ez modalitate bat moduan.

- 1990. hamarkadan *“Ley de Ordenacion General del Sistema Educativo”* (LOGSE) delakoa sortzen da. Hezkuntza lege honek lehen aldiz eskola inklusiboaz hitz egiten du eta integrazio hitza pixkanaka bazterrean utzi (Parrilla, 2002; Tierra eta Castillo, 2010).

Dibertsitatearen ideia sartzen hasten da eta hezkuntza ikasleen beharretara egokitu behar dela diote jada. Ikasle hau ohiko geletan egongo da beste ikasle guztiekin batera eta denek aukera berdinak edukiko dituzte (Darretxe et al., 2016; Lopez-Velez, 2018).

Garai honetan ere terminoekin eztabaidak zeuden eta integrazio hitzetik inklusiora pasatzeaz gain, behar berezidun ikasleak deitu, “inadaptados” edo “disminuidos” beharrean. Horrek argi utzi nahi zuen ikasle guztiek izan zitzaketela momenturen batean zailtasunak, hau da, ez da bakarrik urritasunen bat duten ikasleengan zentratua baizik eta eskolaratzeko garaian momenturen batean oztopo edo arazo bat zutenei zuzendua zegoen (Toboso et al., 2013).

Hori dela eta, Salamankako hitzaurreak ikasle guztiek zituzten arazoak izanda ere ohiko eskola barruan egon behar zirela zioen. Arazo larriak zituztenak partzialki izan baziren ere.

- 1995an “*Ordenacion de la educacion de los alumnos con necesidades educativas especiales*” delakoa dekretuak kalitatezko atentzioa eskaintzea bermatu nahi zuen (Toboso et al., 2013).

XXI. mendean sartuta, inklusioa geroz eta gehiago garatzen joan zen. Honela, 2006an “LOE” hezkuntza dekretuak hezkuntza inklusiboaren orokortzea erraztu zuen. Bertan ohikoak ez ziren eta garai hartan arazotzat kontsideratzen ez ziren arazoak zerrendatu zituen, hala nola, arazo pertsonal edo familiarrak, goi mailako gaitasuna dutenak etab. (Toboso et al., 2013).

Izan den bilakaera ikusita, gaur egun hainbat ezaugarri hartzen dute garrantzia eskola inklusibo batean (Casanova, 2011; Darretxe et al., 2016; Fernandez eta Darretxe, 2011; Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu currikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan; Lopez-Velez, 2018):

- Ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza, egoerak eta baldintzak bermatu.
- Aukera berdintasuna eta diskriminazio eza.
- Hezkuntza malgua bakoitzaren ezaugarri, interes, behar eta gaitasunei egokitzeko.
- Pertsonalitatearen eta gaitasunen garapena.
- Dibertsitateari atentzioa.
- Urritasuna duen pertsona baten ahuldadeetan zentratu ordez, bere gaitasun eta indar-guneetan zentratu.
- Bakoitzaren ikaskuntza posibilitatea aintzat hartu.
- Egoeraren berri izan errealitatea ulertzeko eta gaizki ulertuak eta aurreiritziak ekiditeko.
- Irakasleen formazioa eta koordinazioa garrantzitsua izatea.
- Termino argiketa, hala nola, integrazio/inklusio, normala/ez-normala etab.
- Ikasle talde homogenea izatea ez da onuragarria ikaskuntza prozesurako, zenbat eta ikasle mota ezberdinak izan hobe ikaslearentzat.
- Ikastetxearen antolakuntzan, planteamendu didaktikoetan eta errekurtsuetan arreta jarri.
- Ezberdintasunari errespetua eta begirada positiboa.

Gizartea aldatzen joaten da hamarkadaz hamarkada eta orain dela urte batzuk arrakastatsua zena gaur egun jada ez du zertan izan, horregatik, garrantzitsua da gizartea hobierantz aldatzea eta eskola errealitate horren jabe eginez behar berrietara egoki edo aurreratzea. Nahiz eta gizartea zaila izan aldatzen, azken urteetan inklusibitatea geroz eta indar handiagoarekin entzuten da, lan horretan eskolek badute zeresanik (Casanova, 2011).

## 2.4. INKLUSIOA BERMATZEKO ASPEKTUAK

Ikastetxe batean bazterkeria ekiditeko eta guztizko inklusioa bermatzeko alderdi asko eduki behar dira kontrolpean. Nahiz eta aurrez horietako batzuk labur-labur aipatu ditugun jarraian ezaugarri horiek zein beste batzuk zerrendatu eta garatzen saiatuko gara, izan ere, bai irakasleek, ikastetxe egituraketak, ikasleak, familiak, gizarteak etab. dute zeresana inklusioaren metodo hobekuntza honetan.

Alde batetik, *ikastetxea* dago. Bazterkeria arazoren bat gertatzean edo prebentzio moduan garrantzitsua da zenbait egokitzapen egitea, esaterako, metodologia aldetik, curriculumare ere moldatu daiteke, azpiegitura egokitzapenak, materialak sartzea, teknologiaren laguntza, irakasle gehigarriak sartzea besteak beste. Kontua ikaslearen gaitasunetara egokitzea izan behar du (Educativo, 2007).

Curriculumean zentratuz, honek ezaugarri batzuen azpian egotea beharrezkoa da inklusio behar bezala gauzatzeko; kultura aniztasuna islatu beharra du, lehiakortasunean zentratu ordez kooperazioan zentratzea, praktikoa, erabilgarria eta hausnarketa bultzatu behar du, ikaskuntza prozesuak errealitatea atxikia izan behar du analisi kritiko batekin, edukiak baloreetan oparoak izan behar dira eta modu koherente eta planifikatu zein individualizatu batera egokitu behar dira (Fernandez eta Darretxe, 2011; Rios, 2013). Nabarmena dena ikastetxeko eragile guztiek talde moduan jokatu behar dutela da, guztiak koordinaturik, denen laguntza beharrezkoa baita (Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu currikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan).

Askotan ordea, bestelako arazoak sortzen dira, inklusio prozesua aurrera eramatea oztopo bihurtzen dena, arazo ekonomikoak hain zuzen. Ikastetxe askok ez dute errekurtsio nahikorik dibertsitatea aintzat hartzeko, azpiegiturak eta errekurtsio material zein pertsonalaren aldetik eta horrek prozesua zailtzen du (Darretxe et al., 2016). Bestetik, *ikasleen* kasuan, bazterkeria gertatzean askotan egiten dugun akatsa, benetako egoera ez ezagutzea da. Egoera ez dugu ezagutzen, aurreiritziak sortzen ditugu, estereotipo negatiboek josten dugu klasekidea eta baztertu egiten dugu. Horregatik, oso garrantzitsua da ikasle bakoitzaren egoera zein den ulertzea, honela, bere azalean jar gaitetzke, aurrez genituen aurreiritzi faltsuak

ezabatzen joango gara eta babesa emateko probabilitatea handituko da (Casanova, 2011; Educativo, 2007; Toboso et al., 2013).

Ikasleek beraien aldetik ere aletxo bat jartzea garrantzitsua da, denen arteko laguntza izatea, denen arteko onarpena bermatzeko. Hala ere, batzuetan ikaslearen izaerak eta duten jarrera negatiboak asko baldintzatzen du (Echeita, 2011; Rios, 2013). *Irakasleei* dagokienez, hauek jasotzen duten formazioa puntu garrantzitsua da. Askok ez baitakite inklusioaren inguruko gauza askorik eta ez jakitean ikaslea hanka motz geratzea dakar. Formazio egoki batez gain, oso egokia da klasean beti giro positiboa bermatzea, hau da, irakasleak ikasleen ahuldadeak agerian utzi ordez, bakoitzaren puntu indartsuak goraiatzea, denak klaseko partaide bihurtuz eta erabilgarri sentiaraziz. Baina hau ez da nahikoa, umeen arazoak baliatu genitzake, beraien ezaugarri anitzak, arazoei buelta eman eta indarguneak bihurtu, honela, heterogeneotasuna baliatu ikaskuntza kooperatiboa aurrera emateko eta denak bat izateko (Darretxe et al., 2016; Lopez-Velez, 2018; Parrilla, 2002). Halaber, irakasleak aukeratzen dituen material eta edukiak modu positiboan baldintza ditzake arazo hauek eta ikasleari motibazioa piztu (Rios, 2013).

Askotan arazoa da tutorearen lanarekin ez dela nahikoa izaten egoera konpontzeko, izan ere, beste ikasle mordo bat daude klasean eta denengana iristea oso zaila izaten dela. Horregatik, beharrezkoa denean kanpo laguntza, laguntza irakasle edo espezialista edukitzea oso interesgarria da (Cumellas, 2010). Azkenik, *familiak eta gizarteak* ere eragin handia izaten dute. Ezjakintasunak eta sentsibilizazio eskasak jarrera desegokiak eragin ditzake, hala nola, bazterkeria jarrerak bultzatzen dituzketen edo etiketak jarri. Inguruak ere zeresana du alderdi honetan, familiek, bizilagunek eta inguru sozialak diotenak asko markatuko du (Echeita, 2001; Rios, 2013).

Behin eta berriz diogu, taldean aritzeko, elkar laguntzea gakoetako bat dela eta hau aurrera emateko eta hobekien egokitzen den metodologia, *metodologia kooperatiboa* da. Talde heterogeneoak egoten direnez denek dute zer ikasi denengandik eta bakoitzaren puntu ahaltzuak erabiliz egin behar dute lan. Helburuak partekatu berdintasun batean, arazoak konpondu beraien artean, elkarrizketa, bizikidetzeta eta laguntasuna lortuz (Santos et al., 2014). Aldi berean, kooperazioak erresposabilitatea izatea eragiten du ikasleengan. Bakoitzak ardura bat izatea eta beraz, garrantzitsu sentiaraztea. Honek ondorioz, denen erlazio sozialak garatzea eragin. Ikasketa kooperatiboaz gain, *gorputz hezkuntzak* duen garrantziaz ere ohartu behar gara. Gorputz hezkuntza da denen arteko kohesioa gehien indartzen duen irakasgaia, bertan lortzen diren erlazio sozialak ez dira beste inon lortzen (Echeita, 2011). Gainera, heziketa fisikoa balore eta jarreretan oinarritua bada askoz ere hobe, hots, ezagutzak eraikitzea bigarren plano batean utziz. Kooperazio jarduerak lehiakortasuneko gainetik

jartzen badugu ere asko edukiko dugu irabazita eta ikaskuntza maila anitza izatea, hau da, ikasleri saioaren arduradun eginaraztea (Rios, 2013).

Beste puntuetako bat *gelako apainketak* dira. Nahiz eta tontakeria bat iruditu, apainketek beti jotzen dute estereotipoetara eta topikoetara. Hori horrela, gelako paretak, argazkiak edo literatura aukeraketak kultura guztien aipamena izan beharko luke eta genero berdintasuna bermatu (Aguado, 1996). Aurreko puntuarekin loturik, beste estrategia batzuk ere erabilgarriak dira. Horien artean, beste kulturatako ohiturak ezagutarazi, hitzak ikasiz, lantxoak eginez, bizimodua ikusiz, denek ulertu dezaten egoera bakoitza edo gizarteko errealitatea klasera ekartzea, berri errealak, objektu errealak, pertsonaiak, etab. (Aguado, 1996).

Zenbait puntu gako aipatu arren, beste asko ere ezin ditugu ahaztu, hala nola, berdintasunean hezi behar dugula, dibertsitatea kontuan hartu behar dela eta bere balioaz jabetu (Duhar, 2006; Escudero eta Martinez, 2011; Gimenez, 2003):

- Irakaskuntza demokratiko, justu eta berdintasunean oinarritua izan behar da.
- Ezberdintasunak onartu behar dira.
- Ikaskuntza integrala; kognitiboki, emozionalki eta sozialki.
- Lehiakortasuna baztertu eta ikasleen ikaskuntza prozesuan zentratu.
- Batzen gaituenari eman garrantzia, ezberdintzen gaituena baino gehiago delako.
- Sentsibilizazioa garrantzitsua da.
- Tolerantzia, errespetua, ardura sentimendua.
- Parte hartzea bultzatu.
- Autoestima garatu.
- Ikasleen gustuko gauzetan zentratu.
- Etengabeko formazioa.

Hainbat alderdi kontuan eduki behar dira eta denak zein baino zein konplexuagoak. Hala eta guztiz ere, besteen azalean jartzea eta egoera ezagutu zein ulertzean gainontzeko alderdi asko errazten dira. Honi, metodologia, ingurune eta materialen egokitzeari gehitzen badiogu are eta bide xamurragoa. Azken finean, nahiz eta inklusioa guztiz bermatzea oso zaila izan bazterkeria ahalik eta gehien murrizten saiatzea da helburua. Klase osoaren arteko atxikipena bultzatuz bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz.



### 3. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako ikasgelara inklusioaren gaia helaraztea da. Honela, ikasleek inklusioaren berri izatea, bazterkeria gaitzestea eta gai honen arloen inguruko kontzientziazioa eta hausnarketa egitea da.

Horretarako, gure xedea inklusioaren inguruko unitate didaktiko bat diseinatzea izango da, unitate didaktiko ezberdin bat ikasleen gustuko alderdietan oinarritua. Proposamen honen bidez lortu nahi dena hau da:

- Inklusioa edo bazterkeriarekin lotutako aurreiritziak gainditzea, gizarteak sortzen dituenak eta faltsuak direnak.
- Inklusioa bezalako gai garrantzitsu bat irakaskuntza programaziotik at ez geratzea, irakasleen formakuntza faltagatik edo dena delakoagatik.
- Eguneroko bazterkeria kasuak plazaratu, egoera konkretuak deskribatu eta hauen aurrean nola jokatu behar den jakitea. Kausak, egoerak, zergatiak, ondorioak, prebentzioa, esku hartzea eta konponbideak ezagutarazi.

Azkenean, gure nahia ikasleak, irakasleak eta inguruko familia eta lagunek gai honen inguruko xehetasun guztien berri izatea da, etorkizun hurbil batean belaunaldi gazteek inklusioa egunerokotasunean izan dezaten presente, bazterkeria kasuak ahalik eta gehien murriztuz.

### 4. METODOA

#### 4.1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Inklusioaren inguruko xehetasunak argitu ostean, lan honetako atal praktikora gerturatzeko hasiko gara. Lan honetan, inklusioa gaia lantzeko unitate didaktiko bat egin dugu *“Frozen”* filma oinarri hartuta eta hainbat motatako jarduerekin lotu. Honela, modu dinamiko eta ezberdin batean ikasleei inklusioa beraien kontzientzietan sartu eta ikasle guztiekiko errespetua eta bazterkeria ezaren ideia erakusten ahaleginduko gara.

*“Frozen”* pelikula aukeratzearen arrazoia bazterkeriaren arazoa eta ondorengo inklusioa oso argi ikusten delako izan da. Egoera hau aprobeztatu nahi izan dugu hausnarketa moduko bat izan dezaten ikasleak. Laburpen bat egite aldera, hau dio pelikulak: *“Elsa printzesa berezitasun bat duela ohartzen da, besteek ez dutena. Eskuetatik izotza sortzeko gaitasuna du baina ezin du botere hau kontrolatu eta ia bere ahizpa den Anari bihotza izozten dio jolasean ari zirela. Egoera ikusita gurasoek Elsa baztertzea erabakitzen dute, gizartetik aldenduz eta baita bere ahizparengandik ere.”*

*“Urteak pasatzen dira eta geroz eta isolatuago eta beldurtuago dago Elsa, besteek zer pentsatuko duten buruari bueltak emanaz. Halaber, izozteko gaitasuna geroz eta kontrolagaitzagoa egiten zaio.”*

*“Gizarteratzeko eguna iristen zaio, erregina bihurtzen den eguna eta oso beldurtuta dago. Inork ez daki ordea bere berezitasunez eta denek jarrera egokia dute Elsarekin. Baina nahigabe, bere botereen kontrola galtzen du eta jauregia izozteaz gain herrialdea osoa ere izozten du, pertsona guztiak izutuz.”*

*“Elsak berriz ere bakardadearen bila jotzen du eta jauregitik baso izoztura ihes egiten du. Bitartean gizarte guztiak gaiztotzat hartzen du, urrundu egiten dute, egoera ezagutu gabe epaitu egiten dute. Inork ez du ikusten bere boterearen atzean dagoenaz, hau da, inor ez da jabetzen bere botereak sor ditzakeen abantailez.”*

*“Azkenean, Elsa bera ere konturatzen da, bere boterea ez dela ezer txarra eta guztien onurarako erabiltzen hasten denean bere berezitasuna kontrolatzen hasten da. Orduetik aurrera ingurukoak egoera ulertzen hasten dira eta berak bakarrik duen pribilegio moduan hartzen dute.”*

Horregatik, askotan inguruak ez du laguntzen, izan ere, oso gutxitan saiatzen gara egoera benetan nolakoa den jakiten eta gainera, beti modu negatiboan eta txarrean pentsatzeko joera dugu. Horrek, protagonista ere auto-baztertzea eta benetan duen gaitasuna ez baloratzea eragiten du.

Ausartak izan behar gara, erronkei eta beldurrei aurre egin, dibertsitatea, inklusioa eta tolerantzia goraiatu, gure pentsamenduak mundu zabalari irekiak izan eta ezberdintasunak bizitzak eman digun opari bat dela ospatu.

#### 4.2.HELBURUAK

Planteatutako unitate didaktiko honen helburu nagusia, inklusibitatea bezalako gaia ikasleei mahai gainean jartzea da, zer pentsa izan dezaten eta gaian kontzientziatuz. Honela, aurrez ez dakiten informazioa jaso eta dakizkiten ideia faltsuak edo ideia nahasiak argitzea izango da helburua. Saioekin lotutako azpi helburuen arten honako hauek:

- Bizikidetza lantzea
- Talde kohesioa eta erantzukizuna indartzea
- Berdintasuna bultzatzea
- Errespetua izatea

- Gizarte aniztasunaz kontziente izatea

#### 4.3.PARTE HARTZAILEAK

Nahiz eta hasiera batean Araiako Herri Eskolan planteatu nahi izan dudan unitate didaktiko hau, zenbait arrazoiren ondorioz ezin izan dut unitate didaktiko osoa bertan eman. Hasierako bi saioak aurrera eramatea lortu nuen soilik. Hori dela eta, estrategia aldaketa bat izan zen eta azkenean, Ibarra herriko ikasleekin eman nuen aurrera unitate didaktiko osoa. Parte hartzaileak Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoak izan ziren, hau da, 9-10 urteko neska-mutilak. Denera 13 neska eta 12 mutil zeuden. Ikasle talde lasai eta jatorra moduan dago kontsideratua talde hau, nahiz eta mutilen artean giroa aldrebesten duen baten bat egon. Orokorrean, talde langilea eta parte hartzailea da.

#### 4.4. UNITATE DIDAKTIKOA

Unitate didaktikoa lau saioetan banatuta egongo da. Saio hauetan zehar era ezberdinetako jarduerak, ekintzak, galderak, hausnarketak eta jolasak egingo dira. Lehenengo saioa gaian gerturatzeko saio bat izango da. Saio hau gorputz hezkuntza klasean egingo da eta bertan hainbat jolasen bidez gertatzen diren bazterkeria txikiak edo duten dinamika ikusi nahi da hausnarketa txiki bat bultzarazteko.

Bigarren saiotik aurrera klasera joango gara. Saio honetan, inklusioari sarrera moduko bat egingo diogu, inklusioaren nondik norakoak ezagutuz. Bertan, ariketen bidez, inklusioaren esanahia ezagutzen, bazterkeria egoerak plazaratzen, kausak zerrendatzen saiatuko gara.

Azken bi saioetan, “*Frozen*” filmaren sekuentziekin sartuko gara. Honela, aurrez moztutako “*Frozen*” filmeko sekuentzia batzuk hartu eta banan bana jarriko ditugu, dagokion sekuentzian galderak, deskribapenak, hausnarketak, debateak etab. egingo ditugu. Hirugarren saioa bazterkeriaren egoera aurkeztu eta nola garatzen den ikusteko izango da eta laugarren saioa horri konponbidea nola eman eta inklusioa nola bermatzen den ikustea izango da.

Oraintxe aipatutako unitate didaktikoaren ideia guztiak zehatz-mehatz azalduta azpian:

##### 4.4.1.Gaitasunak

Bigarren taula honetan curriculumean agertzen diren gaitasunak zerrendatzen dira. Saio bakoitza deskribatzerakoan jardueraz jarduera sailkatuko ditugu. Saio edo jarduera bakoitzaren ezaugarrien arabera gaitasunak ere halakoak izango dira. Hala ere, orokorrean

norbere burua ezagutuz besteekin harreman positiboak sortzea eta gertatzen diren gatazkak edo arazoak konpontzeko ardura izatean oinarrituko gara.

## 2. Taula: UD gaitasunak

GAITASUNAK	
A) Oinarrizko gaitasunak	B) Zeharkako gaitasunak
1. Arduraz bizitzen ikastea	1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna
2. Ikasten eta pentsatzen ikastea	2. Ikasten ikasteko gaitasuna
3. Komunikatzen ikastea	3. Matematikarako gaitasuna
4. Elkarrekin bizitzen ikastea	4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna
5. Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea	5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
6. Egiten eta ekiten ikastea	6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
	7. Giza eta arte kulturarako gaitasuna
	8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

### 4.4.2. Edukiak

Hirugarren taulan curriculumeko edukiak agertzen dira, eduki hauek hiru multzotan banatuko dira; kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Saioz saio eta jardueraz jarduera herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza irakasgaiko eduki garrantzitsuenak egongo dira zerrendatuta.

Zerrendatutako eduki hauek guztiak ikasleen arteko atxikimendua lantzeko balioko digute errespetuan oinarrituz. Horretarako, norbere burua ezagutzeko aukera izango dute ondoren besteena ezagutzen hasteko. Ikasle guztien arteko erlazioa indartzea bilatuko da, ezberdintasunak onartu eta balioetsiz, hala nola, emakume-gizon aldea gutxitu, kultura, erlijio edo ezaugarri fisiko ezaugarri anitzak onartu eta ohitura eta bizimodu ezberdinak ulertu. Gizartearen aniztasuna zein den ulertuz eta pertsona guztien azalean jarriz, sortzen diren arazoak eraldatu eta konpontzen saiatuko dira. Balore guzti hauek lantzeko asmoz honako edukiak landuko ditugu:

## 3. Taula: UD edukiak

EDUKIAK			
Jarduerak	Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrera
1. SAIOA			

1. Zaldun baloiduna	1. Norberaren eta besteen gorputzaren ezagutza eta kontrola	1. Norberaren gorputzaren eta gainerako gorputzaren errealitatea balioestea eta onartzea	-Jarrera kritikoa izatea
2. I love	2. Enpatia	2. Ikasle guztien arteko atxikimendua bultzatzea	-Taldekideak errespetatzea
3. Multzokatzea	3. Genero bereizketa	3. Emakume eta gizonezkoen arteko bereizketa egoerak antzeman eta konpontzea	-Parte hartzea bultzatzea
4. Hausnarketa	3. Genero bereizketa 4. Banakoaren nortasuna 5. Gatazkak	3. Emakume eta gizonezkoen arteko bereizketa egoerak antzeman eta konpontzea 4. Gainontzekoen ezaugarri fisiko, kultural, sozial, erlijiozkoak balioestea 5. Edozein arazo eraldatu eta konpontzea	-Jarrera kritikoa izatea -Desberdintasunak errespetatzea
<b>2.SAIOA</b>			
1. Zein da zein?	6. Gizabidezko balioak	6. Gizarte balioak ulertzea eta barneratzea bizikidetzarako	-Egoera ezberdinen jarrera kritikoa izatea -Errespetua
2. Kausa/ arrazoi/zergatia	4. Banakakoaren nortasuna 6. Gizabidezko balioak 7. Sentimenduak eta emozioak 8. Aniztasun soziala	4. Gainontzekoen ezaugarri fisiko, kultural, sozial, erlijiozkoak balioestea eta onartzea 6. Gizarte balioak ulertzea eta barneratzea bizikidetzarako 7. Sentimenduak eta emozioak antzeman eta adieraztea 8. Norberarengandik ezberdinak diren ohiturak eta bizimoduak kritikoki errespetatzea	-Jarrera kritikoa izatea -Desberdintasunak errespetatzea -Kontzientzia jarrera izatea
3. Testu irakurketa	4. Banakakoaren nortasuna 6. Gizabidezko balioak 7. Sentimenduak eta emozioak	4. Gainontzekoen ezaugarri fisiko, kultural, sozial, erlijiozkoak balioestea eta onartzea 6. Gizarte balioak ulertzea eta barneratzea bizikidetzarako	-Jarrera kritikoa izatea -Desberdintasunak errespetatzea -Kontzientzia jarrera izatea

	9.Pertsonen arteko begirunea	7.Sentimenduak eta emozioak antzeman eta adieraztea  9.Pertsonak ulertu eta lankidetzan jardutea	
4. Ezagutzen gara?	2. Enpatia  7.Sentimenduak eta emozioak	2.Ikaskale guztien arteko atxikimendua bultzatzea  7.Sentimenduak eta emozioak antzeman eta adieraztea	-Desberdintasunak errespetatzea  -Kontzientzia jarrera izatea  -Denak bat izatea
<b>3.SAIOA</b>			
1. 1 Bideo sekuentzia	4.Banakakoaren nortasuna	4.Gainontzekoen ezaugarri fisiko, kultural, sozial, erlijiozkoak balioestea eta onartzea	-Egoera ezberdinen jarrera kritikoa izatea
2. 2 Bideo sekuentzia	5. Gatazkak	5. Edozein arazo eraldatu eta konpontzea	-Desberdintasunak errespetatzea
3. 3. Bideo sekuentzia	6.Gizabidezko balioak	6.Gizarte balioak ulertzea eta barneratzea bizikidetzarako	-Kontzientzia jarrera izatea
4.4. Bideo sekuentzia	7.Sentimenduak eta emozioak  8.Aniztasun soziala	7.Sentimenduak eta emozioak antzeman eta adieraztea  8.Norberarengandik ezberdinak diren ohiturak eta bizimoduak kritikoki errespetatzea	
<b>4. SAIOA</b>			
1. 5 Bideo sekuentzia	4.Banakakoaren nortasuna	4.Gainontzekoen ezaugarri fisiko, kultural, sozial, erlijiozkoak balioestea eta onartzea.	-Egoera ezberdinen jarrera kritikoa izatea
2. 6 Bideo sekuentzia	5. Gatazkak	5. Edozein arazo eraldatu eta konpontzea	-Desberdintasunak errespetatzea
3. Istorioaren berridazketa	6.Gizabidezko balioak  7.Sentimenduak eta emozioak  8. Aniztasun soziala	6.Gizarte balioak ulertzea eta barneratzea bizikidetzarako  7.Sentimenduak eta emozioak antzeman eta adieraztea  8.Norberarengandik ezberdinak diren ohiturak	-Kontzientzia jarrera izatea

		eta bizimoduak kritikoki errespetatzea	
--	--	--	--

#### 4.4.3. Programaketa eta metodologia

Laugarren taulan jardueraz jardura izango dugun antolaketa agertzen da. Orain arteko gaitasun eta edukiak agertzeaz gain eta hauek jardura guztiekin lotura egiteaz gain, jardura bakoitzaren azalpena, erabiliko ditugun materialak, espazioak, iraupena eta antolaketa orokorra ere deskribatuko ditugu.

#### 4. Taula: UD programaketa eta metodologia

1 SAIOA: Gerturatzea					
<b>1.jarduera: Zaldun baloiduna</b>		Borobilean jarriko dira binaka bata bestearen gainean, bat zaldiarena egiten eta bestea zaldunarena. Zelai eremuan bi pilota egongo dira bata besteari pasatzeko erabiliko direnak. Paseka dabiltzala baloia lurrera erortzean goian daudenak (zaldunak) talde bat osatuko dute, iheslariena eta behean daudenak (zaldiak) beste talde bat, ehiztariena. Helburua, ehiztariak bi baloiekin iheslariak jotzea izango da.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A1, A4, A6	B6, B4, B8	*1	Binaka borobilean	Bi baloi arin	-G.H. gela -15 min
<b>2. jarduera: I love</b>		Bi harrapatzaile daude, hauen helburua beste guztiak (iheslariak) harrapatzea izango da. Iheslariak, stop esateko aukera izango dute harrapatzailea gerturatzen zaienean. Stop esatean, egoera honetatik libratzeko beste iheslariaren batek muxu bat eman beharko die. Harrapatua dena harrapatzaile bihurtzen da.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A1, A4, A6	B6, B4, B8	*2	Denak batera sakabanatuta	Ezer ere ez	-G.H. gela -20 min
<b>3. jarduera: Multzokatzea</b>		Ikasleak eremu batean korrika ibiliko dira. Irakasleak zenbaki bat esatean kopuru horretan multzokatu beharko dira.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A1, A4, A6	B6, B4, B8	*3	Denak batera sakabanatuta	Ezer ere ez	-G.H. gela -15 min
<b>4.jarduera: Hausnarketa</b>		Borobilean eseriko gara eta izan diren dinamikez eta bazterkeria egoerez hitz egingo dugu. Debate txiki moduko bat izango da.			

Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A1, A2, A3, A4, A6	B4, B6	*4	Borobilean denak batera	Ezer ere ez	-G.H. gela -10 min
<b>2.SAIOA: Sarrera</b>					
<b>1.jarduera: Zein da zein?</b>		Termino batzuen zerrenda batean ezarriko dugu eta ikasleek taulan sailkatu beharko dituzte, inklusioa edo bazterkeria zutabeetan. Ariketa fitxa orrian egin eta denak batera arbel digitalean zuzenduko dugu.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A2, A4	B4, B5, B6, B8	*1	Boskoteka	Papera eta arkatza	-Klasean -10 min
<b>2.jarduera: Kausa/arrazoi/zergrafia</b>		Ahoz ikasleek bazterkeriaren arrazoiak eta kausak bota beharko dituzte eta arbel digitalean apuntatzen joango gara. Behin hau eginda, talde bakoitzak egoera batzuk deskribatu beharko dituzte.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A2, A3, A4, A5,	B4, B6, B8	*2	Boskoteka	Papera eta arkatza	-Klasean -15 min
<b>3.jarduera: Testu irakurketa</b>		Kontakizunaren lehen zatia irakurriko du irakasleak altuan, amaiera airean utzita. Orduan, ikasleek istorio horren arrazoiak edo hipotesiak bota beharko dituzte. Denen artean eztabaidatu ondoren amaiera irakurriko dugu eta honen inguruko hausnarketa egingo dugu.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A2, A3, A4, A6	B4, B6, B8	*3	Denak batera	Ezer ere ez	-Klasean -15 min
<b>4. jarduera: Ezagutzen gara?</b>		Lurrean eserita gaudela ikasle bakoitzak orri bana izango du. Gainontzeko ikasle guztiek ikasle bakoitzaren ezaugarri positibo bat idatzi beharko dute orri horretan bata bestearen azpian. Amaieran, batzuenak altu irakurriko ditugu.			
Gaitasunak		Edukiak	Elkarrekintza mota	Materiala	Espazioa eta denbora
A1, A2, A3, A4, A6	B4, B6, B8	*4	Borobilean denak batera	Papera eta arkatza	-Klasean -20 min
<b>3.SAIOA: Egoera erreala eta garapena (FROZEN)</b>					



<b>1.jarduera: 1 bideo sekuentzia</b>		Bideoa ikusi ondoren, galderak erantzungo ditugu ahoz denen artean eta hausnarketa txiki bat egingo dugu.			
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*1	Talde osoa	Arbel digitala	-Klasean -15 min
<b>2.jarduera: 2 bideo sekuentzia</b>		Bideoa ikusita, ariketa fitxa bete beharko dute, deskribapena egin eta galderak erantzun. Ondoren denen artean, ahoz zuzenduko dugu.			
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*2	Boskoteka	Arbel digitala, papera eta arkatza	-Klasean -15 min
<b>3.jarduera: 3 bideo sekuentzia</b>		Bideoa ikusita, ariketa fitxa bete beharko dute, denen artean ahoz erantzungo ditugu. Ondoren denen artean, hausnarketa egingo dugu galdera horiekin.			
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*3	Boskoteka eta talde osoa	Arbel digitala, papera eta arkatza	-Klasean -15 min
<b>4. jarduera: 4 bideo sekuentzia</b>		Behin bideoa ikusita, hitz zerrenda bat aztertu beharko dute ikasleek. Amaieran, galderak oinarri hartuta hausnarketa egingo dugu.			
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*4	Talde osoa	Arbel digitala, papera eta arkatza	-Klasean -15 min
<b>4.SAIOA: Egoeraren konponbidea eta inklusioa (FROZEN)</b>					
<b>1.jarduera: 5 bideo sekuentzia</b>		Bideoa ikusita, ariketa fitxa bete beharko dute, deskribapena egin eta galderak erantzun. Ondoren denen artean, ahoz zuzenduko dugu.			
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5,	*1	Boskoteka eta talde osoa	Arbel digitala, papera eta arkatza	-Klasean -15 min

	B6, B8				
<b>2.jarduera: 6 bideo sekuentzia</b>	Azken bideoa ikusi ondoren, galderak ahoz erantzungo ditugu. Amaitzeko, azken hausnarketa bat egingo dugu.				
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*2	Talde osoa	Arbel digitala	-Klasean -15 min
<b>3.jarduera: Istorio berridazketa</b>	Frozen pelikularen hasierako egoera ezagututa, istorioan bazterkeria ez geratzeko zer aldaketa egingo genituzkeen idatzi, hau da, hasierako egoera berridatzi. Amaieran, ahoz komentatuko dugu.				
<b>Gaitasunak</b>		<b>Edukiak</b>	<b>Elkarrekintza mota</b>	<b>Materiala</b>	<b>Espazioa eta denbora</b>
A2, A4, A3, A5, A6	B4, B5, B6, B8	*3	Banaka eta talde osoan	Papera eta arkatza	-Klasean -30 min

#### 4.4.4. Ebaluazioa

Bosgarren taulan unitate didaktikoan zehar izango dugun ebaluazioaren xehetasunak agertzen dira, ebaluazio irizpideak eta hauek edukiekin eta gaitasunekin duten lotura. Nahiz eta ebaluazio prozesu hau ez den aurrera eramango, ebaluazio honen intentzioa honakoa da; saio guztietan ikasleen interesa, jarrera eta parte hartzea kontutan hartzea, honekin jakingo baitugu ezagutzak barneratu dituzten. Horretarako, saioz saio egindako ariketa fitxetan, arbeleko ariketetan eta behaketa orokorrean oinarrituko gara, saio bakoitzaren amaieran irakaslearen koadernoan ikasle bakoitzaren xehetasunak apuntatuz.

Saio guzti hauetan hausnarketarako erabiliko dugun informazioa orain aipatu moduan lortuko dugu, ariketa fitxen bidez egiten dituzten jarduerak hartuko ditugu, arbelean egiten ditugun ariketak kontutan hartuko ditugu eta eguneroko behaketa eta ideiak ere gogoan izango ditugu.

Lehenengo saioan, batez ere, jolasen behaketan eta hausnarketako koadernoko apunteak erabiliko ditugu. Bigarren saiotik aurrerako saioetan hainbat modutara lortuko dugu hausnarketa informazioa: Zenbait jarduera taldean ariketa fitxetan egin eta arbelean zuzenduko ditugu, besteetan, ariketa fitxetan egin eta ahoz zuzendu edo zuzenean ariketa fitxak alde batera utzita, ahoz komentatu eta arbelean idatziko dugu edo ahoz komentatu

bakarrik. Sortzen diren hausnarketetan irakaslea ikasleek diotenaren inguruan apunteak hartuko ditu koadernoan, honela hausnarketarako ahalik eta ideia gehienak edukitzeko.

### 5. Taula. UD ebaluazio irizpideak

EBALUAZIOA			
Jarduerak	Gaitasun zenbakia	Edukiak	Ebaluazio irizpideak
<b>1.SAIOA</b>			
1.jarduera: Zaldun baloiduna	B6, B4, B8	1,2,3	<p>1. Ea erakusten duen, ohiko jarreran eta hizkeran, errespetua eta balioespen kritikoa eta konstruktiboa aintzat hartzen dituela.</p> <p>2. Ea antzematen dituen gelaren edo ikastetxearen barruan taldeko pertsona bat bakartzea edo baztertzea eragin dezaketen egoera edo ekintzak.</p> <p>3. Ea aztertzen eta debatitzen dituen gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdintasun egoerak sorrazten dituzten gertaera edo arazoak.</p> <p>4. Ea erabiltzen dituen hitzeko komunikaziorako eta hitzik gabekorako trebetasunak: aktiboki entzuten duen; bestearen lekuan jartzen den; beste ikuspuntu batzuk errespetatzen dituen; sentimendu eta ideiak errespetatuz adierazten dituen.</p> <p>5. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagun artean ere.</p>
2.jarduera: I love	B6,B4,B8	1,2,3	
3.jarduera: Multzokatzea	B6,B4,B8	1,2,3	
4. jarduera: Hausnarketa	B4, B6	3,4,5	
<b>2.SAIOA</b>			
1.jarduera: Zein da zein?	B6, B4, B5, B8	6	<p>2. Ea antzematen dituen gelaren edo ikastetxearen barruan taldeko pertsona bat bakartzea edo baztertzea eragin dezaketen egoera edo ekintzak</p> <p>6. Ea taldeko jardueretan aktiboki parte hartzen duen gelan, ikastetxean eta komunitatean, bere ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzen laguntzeko.</p> <p>7. Ea gatazkak sorrazten dituzten egoerak hautematen laguntzen duen eta horrelakorik ez sortzeko jokaera egokiak proposatzen parte hartzen duen.</p> <p>8. Ea ideiak eta ekintzak proposatzen dituen, eta taldean parte hartzen duen denen artean erabakitako helburua lortzeko.</p>
2.jarduera: Kausa/arrazoi/zergatia	B6, B4, B8	4,6,7,8	
3.jarduera: Testu irakurketa	B6, B4, B8	4,6,7,9	
4. jarduera: Ezagutzen gara?	B4, B6	2,7	

			<p>9. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagun artean ere.</p> <p>10. Ea parte hartzen duen esteriotipoak eta bereizkeria irudiak balio gabetzeko dinamiketan</p> <p>11. Ea bakarra izatera daramaten ezaugarriak antzematen dituen.</p> <p>12. Ea onartzen dituen bere buruaz gehien gustatzen zaiona, bere lorpenak eta bere zailtasunak</p> <p>13. Ea onartzen dituen bere inguruko pertsonen sentimendu eta emozioak, bai eta horiek pribatasuna gordetzeko duten eskubideak ere.</p>
<b>3.SAIOA</b>			
1.jarduera: 1 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	<p>7. Ea gatazkak sorrarazten dituzten egoerak hautematen laguntzen duen eta horrelakorik ez sortzeko jokaera egokiak proposatzen parte hartzen duen.</p> <p>9. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagun artean ere.</p> <p>10. Ea parte hartzen duen esteriotipoak eta bereizkeria irudiak balio gabetzeko dinamiketan.</p> <p>14. Ea antzematen dituen parte hartzen duen taldeetan gertatzen diren bereizkeria egoera konkretuak.</p>
2.jarduera: 2 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	
3. jarduera: 3 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	
4.jarduera: 4 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	
<b>4.SAIOA</b>			
1.jarduera: 5 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	<p>4. Ea erabiltzen dituen hitzezko komunikaziorako eta hitzik gabekorako trebetasunak: aktiboki entzuten duen; bestearen lekuan jartzen den; beste ikuspuntu batzuk errespetatzen dituen; sentimendu eta ideiak errespetatuz adierazten dituen.</p> <p>7. Ea gatazkak sorrarazten dituzten egoerak hautematen laguntzen duen eta horrelakorik ez sortzeko jokaera egokiak proposatzen parte hartzen duen.</p> <p>9. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagun artean ere.</p>
2.jarduera: 6 bideo sekuentzia	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	
3.jarduera: Istorio berridazketa	B6, B4, B5, B8	4,5,6,7,8	

			<p>10. Ea parte hartzen duen esteriotipoak eta bereizkeria irudiak balio gabetzeko dinamiketan.</p> <p>14. Ea antzematen dituen parte hartzen duen taldeetan gertatzen diren bereizkeria egoera konkretuak.</p> <p>15. Ea bere ingurune hurbileko gatazka egoera bat deskribatzen duen eta konponbideak edo alternatibak bilatzeko estrategiak jartzen dituen martxan.</p>
--	--	--	--

## 5. EMAITZAK

### 5.1. LEHENENGO SAIOA

Lehenengo saioa, gorputz hezkuntzako saioa kontsideratu dezakeguna, hainbat jolas egin genituen denen arteko hausnarketan amaituz. Saio honen bidez testuinguruan kokatzea, jolasen bidez bazterkeria egoerak azalaraztea eta hauen inguruan hausnartzea zen asmoa. Aukeratutako jolasak ere propio aukeratuak ziren egoera horiek bultzarazteko. Hori kontuan hartuta, jolasak egiten hasi ginen.

Lehen jolasa, *“zaldun baloiduna”* izan zen. Jolas honen bidez, bikoteak egiteko dinamikak eta taldekatzearekin lotutako egoerak ikusi nahi nituen, nola antolatzen ziren, zein geratzen zen azkena eta genero aldetik ere nola jarduten zuten.

Hasieran, jolasa zein zen azaldu gabe bikoteak egiteko esan nien. Segituan hasi ziren bikoteak egiten jakin gabe zertarako zen bikoteak egitea. Ezer komentatuta gabe jarraitu genuen. Bikoteak egiterakoan neskak neskekin jarri ziren eta mutilak mutilekin,, bikote mixto bat geratu zen beste aukerarik ez zegoelako. Behin bikoteak eginda zituztela, jolasa azaldu nien eta orduan jabetu ziren batzuk bikoteak egin zituzten moduan nekez eramango zutela jolasa aurrera. Izan ere, bata bestearen gainean jarri behar ziren jolasean eta bikote batzuk pisu desoreka handia zutenez arazoak sortu zitzaizkien. Ez nien bikoteak aldatzen utzi eta horrelaxe egin genuen jolasa, kontura zitezen zer garrantzitsua zen ezer egin aurretik egoera ezagutzea.

Bigarren jolasera pasa ginen ondoren, *“I love”* jolasera. Jolas honekin neska-mutil arteko erlazioa ikusi nahi izan nuen, zenbateko gertutasuna zuten elkarrekiko. Gertutasun hau salbatzerako garaian norengana joaten ziren ikusiz nabaritzen zen edo harrapatzerakoan norengana joaten ziren. Jolas honetan salbatzeko muxu bat eman beharra bazegoen ere, azkenean salbatzeko besarkada bat ematearekin geratu ginen. Aurreikusten zen bezala neska-mutilen arteko urruntasuna handia izan zen. Salbatzerako garaian neskak neskei

ematen zien besarkada eta mutilak mutilei, lotsa ematen zien bere genero berdinekoa ez zen bati besarkada ematea. Gainera, nahiago zuten harrapatzen utzi beste bati besarkada bat ematea baino. Harrapatzerakoan aldiz, bi generoen aldeak ez ziren horren nabariak. Nahiz eta genero berdinekoa harrapatzeko joera izan kontrako generoarengana ere joaten ziren noizbehinka.

Hirugarren eta azken jolasa “*multzokatzea*” izan zen. Denen arteko atxikimendua ikusteko balio izan zidan jolas honek, hau da, nor geratzen zen askotan bakarrik edo nori kostatzen zitzaion taldeetan sartzea. Jolasa egiten hasi eta bazen neska bat beti lehenengoetako zena bakarrik geratzen edo kaleratzen. Neska hau kasualitatez “zaldun baloiduna” jolasean bikote mixtoan jarri zen neska bera zen. Genero aldetik, taldekatzerako garaian urruntasuna izaten jarraitzen genuen, ia denek zutelako joera bere genero berdinekoarengana joatekoarena baina hala ere, talde mixtoak ikusten ziren.

Jolas guztiak amaitzean, gertatutako egoera guztien inguruko hausnarketa egin genuen, bazterketa txikiak, genero urruntasuna edo aurreiritziak. Kasu batzuetan kontziente ez zirela argudiatzen zuten, besteetan lotsagatik egiten zutela eta baita harreman gehiena zuten lagunengana jotzen zutelako. Ateratako hausnarketak hurrengo atalean azalduko ditut sakonki.

## 5.2. BIGARREN SAIOA

Bigarren saioari dagokienez, ohiko gelan sartu ginen eta bertan inklusioaren sarrera egin genuen, hau da, inklusioaren nondik norakoak ezagutu, zer esan nahi duen, bazterkeriarekiko lotura, egoerak aurkeztu, kausak ezagutu eta honen konponbide moduan autoestima ariketak egin genituen. Ikasleek gai honen inguruan zenbateraino zekiten jakin nahi genuen. Lehenengo ariketak inklusioa eta bazterkeria terminoa zer zen ezagutzeko balio izan zigan. Orokorrean, inklusioa terminoa zer zen ez zekiten arren bazterkeria zer zen bazekiten eta ariketa fitxak zituzten irudiekin atera zuten bakoitzaren esanahia. Ondoren, taldekideen laguntzarekin termino guztiak oso ondo sailkatu zituzten, ideia orokorra geratu zitzaienaren seinale.

Bigarren eta hirugarren ariketa bazterkeria egoerak identifikatzeko eta hausnartzeko ziren. Kasu honetan burutik pasatako bazterkeria arrazoi guztiak zerrendatu behar zituzten. Harian- harian kausa dezente zerrendatu genituen, hala nola, generoa, ezgaitasuna, kultura, arraza, erlijioa etab. Denen artean inklusioaren inguruko oinarrizko informazioa badakitela ikusi zen. Hala ere, nahiz eta arazo hauek onartu eta teoria jakin, gero errealitatean akats horiek egiten dituzte, lehen saioan ikusi zen bezala.

Azken ariketa ikasle bakoitzaren autoestima igotzeko ariketa bat izan zen, denak taldeko partaide sentiarazi zitezten eta bakoitzak zituzten indar-guneak eta lotura puntuak elkarbanatzeko. Honela, ikasle bakoitzaren alderdi positiboak zerrendatu genituen. Ikasleak motibaturik ibili zirela nabaritu zen eta askok sorpresa hartu zuten zenbait ikasleren ezaugarri positibo batzuk ezagutzen ez zituztelako. Autoestima igotzeko, denak baliagarriak sentiarazteko eta atxikipena handitzeko balio izan zigun ariketa honek.

### 5.3. HIRUGARREN ETA LAUGARREN SAIOA

Hirugarren eta laugarren saioak ildo beretik doaz, bieran "*Frozen*" pelikularen sekuentzia mozketak ikusi eta filma analizatuz inklusioaren inguruko hausnarketak egin genituen. Lehenengo saioa egoeraren aurkezpena ikusteko baliatu genuen, bazterkeria arazoa identifikatu, honen inguruko eraginak eta ondorioak ateraz. Bigarren saioan egoeraren konponbidearen inguruan aritu ginen eta nola birgizarteratzen den pertsonaia. Bi saio hauetan hainbat ariketa egin genituen, hala nola, galderak, deskribapenak, hausnarketak, debateak, konparaketak etab. Orokorrean, parte hartzea handia izan zen eta ideia dezente bota zituzten. Beraz, inklusioaren inguruko ideiak buruan geratu zitzaizkien sententziarekin geratu nintzen.

Ariketa guzti horietatik, lehenik eta behin, "*Frozen*" filmaren bazterkeria identifikatzeko lana zuten. Denak bat zeuden gurasoak gizartetik aldentzen zutela besteak bezalakoa ez zelako edo desberdina zelako. Ikasleek ekintza hori gaitzesten dute eta inori onurarik egiten ez ziola ondorioztatzen dute. Hala ere, nahiz eta esan arazo edo berezitasunak ezkututzen ibili behar ez dela, noizbait taldean gaizki ez begiratzeko edo barre ez egiteko zerbait ezkutatu dutela galdetzean, batzuk baiezkoa esan dute. Adibide batzuen artean, fardela erabiltzen zutela ez esatea, bizikletan ez zekitela ezkutatzea edo zorriak zituztela ez esatea bezalako txikikeriak.

Bigarrenik, behin filmeko protagonistaren berezitasuna jakinda, gizartean egoten den iritzi edo tratu aldaketa aipatu genuen eta estereotipoek duten indarra. Horregatik, jendeak orokorrean dituen aurreiritzien inguruan hausnartu genuen. Denek ditugula onartu genuen, askotan faltsuak direla eta gizarte honetan asko baldintzatzen dutela ondorioztatu genuen. Gainera, bazterkeriaren abiapuntuetako bat dela ere atera genuen.

Bestetik, baztertua den pertsona horren azalean sartu ginen eta hasieratik pairatu zituen egoeren eta arazoaren inguruan hausnartu genuen. Hori horrela, hasierako beldur eta lotsa hori identifikatu genituen, zuen askatasun eza eta portaera goibel zein tristea. Horregatik, lehen arazoa, arazoa bera ezkutatzea zela ondorioztatu genuen. Ondoren, gizarteak jakiten duenean berezitasunaren berri, hasierako arazoa ezabatzen da baina beste arazo bat sortzen

zaio, baztertua sentitzen dela eta nahiz eta aske sentitu egoera triste eta goibela jarraitzen duela ikusi genuen.

Prozesu guztia ikusi ondoren, autobazterketatik gizartearen bazterketara, konponbideen bila abiatu ginen. Bi konponbide proposatzen ziren; bat egokia iruditu zitzaiena, pertsona hori ulertu, egoera ezagutu eta laguntza eskaini eta bestea, txartzat jo zutena, pertsonari bizkarra ematea eta bere egoera ulertu gabe aurreiritzi sinpleetan oinarritzea. Lehenengo konponbidea onartu ostean, bideo sekuentzian ikusten zen aurreiritziak hautsi egiten zirela eta beste bat bezalakoa izanik onartua zela.

Azkenik, inklusioaren informazio guztia laburbiltze aldera eta lau saio hauetan ikasi dutena islatze aldera, istorioaren berridazketa txiki bat egin behar zuten, hasierako egoera aldatu eta ondorioz, bazterkeria zantzurik gerta ez zedin. Ikasle gehienek ideia orokorra garbi zuten, horregatik, asko eta asko oinarritu ziren, ariketa hauetan guztietan zehar esan dugunean, hau da, egoera ikusi eta ulertu, laguntza eskaini, aurreiritziak faltsuak ezabatu, batzen gaituzten puntuak bilatu eta hauei erabilgarritasuna eta zentzu positiboa eman behar dela bazterkeria gerta ez dadin. Batzuk aipatzearren hauek: Batzuk zioten, Elsak hasieratik bere berezitasuna bere ahizpari esan eta bien artean laguntzea ondoren gizartearen aurrean dena azaltzeko. Besteek, gurasoak hasieratik Elsari beldurra ez sartzea eta gizarteari inongo beldurrik gabe beraien alabaren egoera naturaltasunez azaltzea. gainontzekoek, Elsaren boterea hasieratik naturaltasunez hartuz erabilera ematea gizartean, izotz pistak egiteko, izotz puskak egiteko etab. honela gizartean hasieratik onartua izan zedin. Denak ildo beretik eta konponbide egokiekin.

## **6. ONDORIOAK**

Egindako unitate didaktikoan emandako iritziak direla medio honako ideia hauekin gera gaitezke:

### **6.1. AURREIRITZIAK**

Bizi izandako hausnarketetan ikasleek komentatu zuten askotan gertatzen dela zerbait jakin aurretik, egoerari aurre hartzen diogula eta erabaki okerrak hartzen ditugula edo norbait ezagutu gabe, aurreiritziak edo usteak jota eta bere benetako egoera ezagutu gabe oker jokatzeko dugula. Eta hala, ikasleek komentatu zuten bazterkeriarekin antzeko zerbait gertatzen dela, gizarteak sortzen duen irudi faltsu edo estigmatizatuaren ondorioz etiketak jartzen ditugula, pertsona hori bazterrean utziz, ildo beretik, hainbat aipamen ikusi dira literaturan (Diez, 2007; Educativo, 2007).



Ikasleek errealitate hori irudikatu zuten “*zaldun baloiduna*” jolasean. Egin behar zutena ezagutu gabe, bikoteak egiten hasi ziren jabetu gabe zer ezaugarri eduki behar zituzten kontuan. Horregatik, batzuei erabakia oker atera zitzaien. Izan ere, egoera jakin gabe hautaketa egitean ikasleak komentatzen zuten beti berdinak aukeratzeko joera dutela, beti berdinak baztertzen ditugula, ustezko ahulenak iruditzen zaizkigulakoan. Denen arteko hausnarketaren bidez, honek ez duela zertan horrela izan, pertsona guztiak ez direla onak gauza guztietan, pertsona bakoitzak hainbat indargune izango dituela eta askotan hori ez dugula aprobetxatzen ondorioztatu genuen. Gainera, askotan gertatzen diren bazterkeria egoerak modu inkontzientean edo konturatu gabe egiten dituztela ere baziote ikasle batzuk.

Toboso (2013) eta Casanova (2011) autoreek diote eta hala helarazi diet ikasleei, beraiek honetaz ez baitira kontziente izan, arazo guztiaren abiapuntu moduan, pertsonen edo ikasleen ezaugarri positiboak baino ezaugarri negatiboak ditugula buruan eta horregatik egoera aldatzeko zailtasun hori. Jolas honetan esaterako, oso desorekatuta zeuden bikoteak egon dira, kasu honetan pisu oreka eta indarra ziren ezaugarri gakoak baina esan bezala egoera ikusi eta ulertu behar dugu lehendabizi. Horregatik, klaseko ideiarekin bat eginez, denak izan gaitezke baliagarriak, hau da, aukeraketa ez da zertan beti berdina izan, jolasaren, jardueraren edo egin beharrekoaren arabera eta bakoitzaren ezaugarrien arabera izango da, bakoitzaren indarguneak batuko gaitu eta ez ahulguneak urrundu.

Bizitza errealean gertatzen diren ohiko egoerak dira, izan ere, ez gara pentsatzera geratzen honi zer gustatzen zaion edo zertan lagunduko lidakeen, aurreiritzi faltsuetan zentratzen gara eta ondoren datoz arazoak. Beraz, Diez (2007) eta Garcia (2008) autoreei so eginez, benetako egoera ikusi eta ulertutakoan, egoeraren arabera antolatu edo jokatu beharko dugu. Aurreiritzi faltsuak ezabatuko ditugu, bakoitzaren azalean jarri, bakoitzaren indarguneak aprobetxatu eta batzen gaituzten puntuak bilatzeko.

## 6.2. GENERO BAZTERKERIA

Adin hauetan oso ohikoa den egoera da mutil eta nesken arteko urruntasuna eta noski, hiru jolasetan islatu da hori. Mutilek beti dute tendentzia mutilekin elkartzekoarena eta neskek neskekin elkartzekoarena, bai bikoteak egitean bikote mixtoak nekez egongo direlako, bai harrapaketa jolasean salbatzerakoan genero berdinekoarenganako tendentziagatik eta multzokatzerakoan ere antzeko zerbait. Egunerokotasun batean ere errealitate bera islatzen da, patioan jolasean, klasean esertzean edo eskolaz kanpo.

Klaseko dinamika ikusita, batez ere, jolasen dinamika, genero urruntasun horren inguruko hausnarketa egin dugu eta egoera horien inguruan ikasleekin hitz eginez. Ikasleek komentatutakoaren harira, oso kontziente direla aitortu dute askoz ere gehiago kostatzen

zaiela aurkako generoarekin erlazionatzea norbere generodun ikasleekin erlazionatzea baino. Ikasleek bi arrazoi nagusi bota dituzte, lotsa eta bakoitzaren gustuak edo izaera.

Ikasleen iritziz, ez dute ezer inoren aurka baina ez zaie komodoa egiten aurkako generoarekin nahastea edo kontaktua izatea, batez ere, gainontzeko ikasleek zirikatzen dituztelako egoera horietan, mutil hori edo neska hori gustatzen zaiela esanez. Ikasleek dioten bigarren arrazoa, genero bakoitzaren izaeragatik dagoen aldea da eta ondorioz, gauza batzuk gustukoagoak dituztela besteak baino. Honen inguruan bat datoz Jimenez eta Taberner (2009) eta Echeita (2001), hauek ere lotsa eta izaera aipatzen baitituzte arrazoi gisa eta baita komunikabideek eta gizarteak duten eragina ere.

Hori dela eta, Santosek (2014) kasu hauetan garrantzitsua dela dio metodologia kooperatiboa aintzat hartzea, talde lanean aritu, helburuak partekatu eta ardurak ezartzea, ardurak elkarbanatuz eta garrantzitsua sentiaraziz erlazio sozialak ere garatzen baitira. Hala ere, adinak gora egin ahala barrera hori txikitzen joaten da, baina inoiz ez da desagertzen.

### 6.3.TALDEKO ATXIKIPEN EZA

Klase barruko eguneroko dinamiketan askotan egoten da ikasleren bat taldean sartzea kostatzen zaiona edo klasekideekin erlazionatzeko zailtasun handiagoak izaten dituen. Gure kasuan bazen neska bat egoera hori nabaria zena eta momentu puntual batzuetan bazterrean uzten zutena. Neska honen kasuan eta gainontzeko zenbait kasutan ere gertatzen da, bazterrean gertatzen den ikasle honen izaerak eragina duela besteekiko atxikipena. Izaera isilekoa, lotsatia eta autoestima baxuko ezaugarriak izaten dituzte eta besteekin harremantzea asko kostatzen zaie (Jimenez, 2008). Hau agerian geratu zen, taldeak egiterako garaian, “*zaldun baloiduna*” jolasean kasualitatez bakarrik geratu zen neska bakarra izan zen eta “*multzokatzea*” jolasean ere askotan geratu zen bakarrik beste inorekin multzokatu gabe edo multzoko azkena izaten.

Egoera honen inguruan zeharkako hausnarketa eginaz, ikasleek denen arteko ideia zaparraden bidez, komentatu zuten gehienetan bakoitzak bere buruari begiratzen diola, besteen azalean jarri orde zuten eta bat daude laguntza eskaintzea eta bere egoera ulertzean dagoela gakoa, Cumellasek (2010) diotenari jarraiki. Literaturak ere badio (Diez, 2007; Garcia, 2008), eta ikasleek badakite, egoera ikusi, ezagutu eta ulertu beharko dugula, ziur bainago bere indarguneak ezagutzen ez dituztela eta elkarren komunean dituzten ezaugarri asko partekatzen dituztela.

Hausnarketaz gain eta kontuan hartuta ikasle honen autoestima baxua, autoestima eta konfiantza igotzen saiatzeko ahaleginak ere egin beharra daude eta lehenengo puntuan

ikasleekin esandakoarekin bat, bere alde indartsuak ezagutarazi, klasekideei demostratzeko bera ere gauza asko egiteko gai dela (Duhar, 2006; Casanova, 2011; Toboso et al., 2013). Horretarako, jarduera bat egin genuen bigarren saioan, “ezagutzen gara?” izeneko, ikasle bakoitza ongi ezagutarazteko, bakoitzaren indarguneak, gustuko alderdiak edo zertan ziren iaioak. Nahiz eta zaila izan ikasle bakoitzaren sentimenduak nolakoak izan ziren, nabaritzen zen klaseko giroan motibaturik zeudela. Besteengandik normalean esaten ez diren hitz politik entzuteak autoestimaz igotzea eta baloratua sentiaraztea suposatu ziela iritzi zuten ikasleek. Gainera, batzuk ez zekizkiten ezaugarriak zituztela ohartu ziren hamar urte pasa eta gero. Hemendik aurrera, ezaugarri hauek egoeraren arabera egoki erabiltzen dituzten edo ez beraien esku egongo da.

Azkenik, ikasketa kooperatiboez gain gorputz hezkuntzak ere lagunduko dio ikasle honi denen arteko atxikipena lortzen, erlazio sozialak gehien garatzen dituen ikasgaia baita (Echeita, 2011).

#### 6.4. TEORIA ALDE BATETIK ETA ERREALITATEA BESTETIK

Ikasleekin izandako hausnarketetan atera dudan ondorioetako bat zera da, denen artean inklusioaren eta bazterkeriaren ideiak osatzeko gai zirela, batzuk gehiago besteak gutxiago, baina nahiko argi zutela zein zen arazoa eta zer gaitzesten zuten. Gehiago kostatzen zitzairen honen inguruko konponbideak zein ziren jakitea. Teorian ideia orokorrak argi izanagatik ere, ondoren errealitatean teoriaraino aipatutako zenbait aspektu ahaztu edo ez zituzten kontuan hartzen. Izan ere, lehen ikusi dugu, beraiek aipatutako bazterkeria txiki batzuk klasean, jolasetan edo egunerokotasunean nabaritzen ziren.

Beraz, ikasleen hitzak hartuz, kontziente dira bazterkeriak suposatzen duen arazoez baina oso urrun dagoen zerbait bezala ikusten dutela diote eta askotan ez dira konturatzen beraiek ere bazterkeria txikien partaide direla. Pertsona hauen azalean jartzea asko kostatzen zaiela onartzen dute eta noski, norberari gertatzen ez zaigun bitartean ez direla benetan konturatzen egoeraz.

#### 6.5. BAZTERKERIA IDENTIFIKAZIOA ETA ONDORIOEN ANALISIA

Hirugarren saioan “Frozen” filmaren bideo sekuentziak oinarri hartuta, bazterkeriaren inguruko zenbait hausnarketa egin genituen ikasleekin, arazoaren inguruan edo hauek zekarten ondorioen inguruan. Lehen bideo sekuentziak ikusi ostean, ikasleek segituan identifikatu zuten lehen arazoa zein zen. Hau komentatzen zuten; gurasoak gizartetik aldentzen dutela besteak

bezalakoa ez delako edo desberdina zelako, hau da, pertsona baten berezitasuna ezkututzen ibili eta etxetik gizartearenganako eta lagunenganako urrunketa nabaria zela eta ondorioz, horrek norberaren bazterketa eragin zuela beldurragatik, hots, pertsona hau ez dela besteak bezalakoa ikusten eta bere buruaren baitan biltzen dela.

Cumellas (2010) eta Educativo (2007) ikasleek esan dutenaren haritik doaz, hots, berezia den pertsona honek ez du nahi izaten bere egoeraren berri jakiterik, horregatik berezitasun hori ezkututzen ibiltzen dira, konturatu gabe bere kalterako ez ezik, bere ingurukoen kalterako ere badela.

Ikasleen iritziarekin jarraituz eta baztertuaren egoeraren analisisia eginez, ikasleek diote ezkutatzearen erabaki hori dela eta pertsona horrek ez duela naturalki jarduten eta triste edo ez dela zoriontsu egongo taldean. Gainera, ezkutatze horren arrazoia taldean gaizki begiratzea eta baztertzea ekiditearen beldurra dela. Azkenean, berezitasuna ezkututzen ibiltzea arazoa ezkutatzea eta handiagotzea izango dela ere badiote, luzarorako kaltea izanik.

Kasu honetan, Tierra eta Castilok (2010) hau diote, pertsona batek, edozein berezitasun badu, lotsa edo beldurra galdu eta onartzea da erabakirik egokiena. Denek dute beste guztiengandik ezberdintzen duten zerbait eta oztopo moduan hartu ordez, ikuspegi positiboa atera eta botere moduan hartzea da hoberena, erabilgarritasuna ematea. Bideo sekuentziarekin aurrera joan ahala, egoera aldatu egiten da, pertsona honen berezitasuna jakitera pasatzen delako gizartea eta beste arazo bat izatera pasa. Bigarren arazo hau ere identifikatzen dute ikasleek; hauen iritziz berezitasuna ezkutatzearen lehenengo egoera hori gainditu eta behin pertsona horren berezitasuna ezagututa, gizarteari arrotza egiten zaio desberdina edo berezi den pertsona hori. Hori dela eta, beldurrak jota, ezer jakin gabe eta egoera ulertu gabe soluzio errazenera jotzen dute, baztertzea. Ikasleek berriz ere aurreiritzietara bueltatzen garela diote, lehen esan bezala egoera guztiaren abiapuntua izanik.

Diez (2007) eta Garcia (2008) autoreek, beraien lanetan, aurreiritzi faltsuak duten eragina azpimarratzen dute eta horren ondorio den bazterkeria gizartearengandik eta lagunengandik. Hala ere, kasu hauetan, ongi asko dakigu zer egin behar den; egoera ulertu eta onartzea da gakoa, aurreiritziak hautsi eta indarguneak kontuan hartu.

## 6.6. BAZTERKERIAREN KONPONBIDEA ETA INKLUSIOA

“*Frozen*” filmarekin jarraituz, bazterkeria nola konpondu eta inklusioa nola lortzen duten ikusiko dugu. Filmean argi ikusten da jendeak bi hautu egin dituela bazterkeriaren aurrean, jarduteko bi modu. Ikasleek biak deskribatu zituzten ondorengo moduan: Batetik, gizartearen ehuneko handi baten erabakia deskribatu zuten, arazoari bizkarra ematea zela eta bestetik, batez ere, ahizparen jarrera deskribatu zuten, arazoa konpontzen saiatzea zela, baztertuarekin hitz eginez eta bere azalean jarriz egoera ulertuz.

Lehenengoari dagokionez, ikasleak eta irakasleak adostasunera iritsi ziren, edozein pertsonak egoera bat ulertzen ez duenean eta ulertzeko intentziorik egiten ez duenean aurreiritzietan oinarritzen dela, askotan errealitatearekin bat ez datozen ideiak izanik hauek. Gainera, ikasleen ustez, errazena hauetan oinarritu, arazoari entzungor egin eta gure bizitza egiten jarraitzea izango zen. Ez da ordea, arazoa konpontzeko erarik egokiena. Bazterkeriaren arazoa ekiditeko, pentsamendu hori alde batera utzi eta gure partetik jarri beharra dagoela diote ikasleek.

Casanova (2011) eta Toboso (2013) autoreetan oinarrituz, ikasleek komentatzen dute, lehen urratsa, ideia faltsu horiek hautsi eta zerbaiten egoeraz epai bat eman behar dugunean bere egoeraren berri jakitea dela, hau da, errealitatea ulertzea. Bere egoera ikusi eta ulertzean norberaren uste eta ideia okerrak ezerezean geratzen direla ere badiote eta onartze bidean jarriko garela. Gainera, beste zenbaitek laguntza eskaintzea ere ez dela konponbide txarra diote. Bestetik, ikasleen ideien artean, egoera ulertzean bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko tartea izango dugula, askotan ezaugarri negatiboak ezagutzen baititugu eta ez positiboak. Hauek ezagutuz batzen gaituzten puntuak bilatu eta denen indarguneak aprobetxatu ditzakegu. Horregatik, azken hausnarketa moduan, ikasleek, pertsona bakoitza den bezalakoa dela ere, bere berezitasunak onartu eta arazoa den tokian opari edo boterea ikusi beharko dutela onartu dute, honela, denak aberastuko garelako elkarlanean.

Ezberdintasunak direnak direla ere, denek dugu lekua gizartean eta denak elkar ikasten dugu inor zu bezalakoa ez delako kanpoan utzi gabe, ez baitaude berdina diren bi pertsona (Educativo, 2007).

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Aguado, M. T. (1996). *Educación multicultural. Su teoría y su práctica*. Madrid. UNED.
- Aleman, C. (2009). Integración e Inclusion: Dos caminos diferenciados en el entorno educativo. *Cuadernos de Educación y Desarrollo*, 2, <http://www.eumed.net/rev/ced/02/cam5.htm>.
- Alonso, M. J. eta de Araoz, I. (2011). *El impacto de la Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad en la legislación educativa española*. Madrid. CERMI.
- Blanco, R. (1999). Hacia una escuela para todos y con todos. *Boletín*, 48, 57-72.
- Bravo, I. (2015). Exclusion, segregacion, integracion o inclusion (Blogaren mezua). Hemendik berreskuratua: <http://ortopediainse.blogspot.com.es/2015/03/exclusion-segregacion-integracion-o.html>.
- Casanova, M. A. (2011). De la educación especial a la inclusión educativa. Estado de la cuestión y retos pendientes. *Participación Educativa*, 18, 8-24.
- Cumellas, M. (2010). La Educación Física Adaptada para el alumnado que presenta discapacidad motriz en los centros ordinarios de primaria de Cataluña. *Apunts. Educación física y deportes*, 103, 112-112.
- Darretxe, L., Gaintza, Z. eta Etxaniz, J. (2016). Hacia una educación más inclusiva del alumnado con discapacidad en el área de educación física. *EmásF: revista digital de educación física*, 41, 10-20.
- Díez, A. M. (2007). *La exclusión social: análisis y propuestas para su prevención*. Sevilla. Fundación Alternativas.
- Duhart, D. (2006). Exclusión, poder y relaciones sociales. *Revista Mad*, 14, 26-39.
- Echeita, G. (2011). El proceso de inclusión educativa en España. ¡Quien bien te quiere te hará llorar!. *Participación Educativa*, 117-128.
- Educativo, F. (2007). *La inclusión en la educación. Cómo hacerla realidad*. Lima: Raíl Peña. SAC.
- Escudero, J. M. eta Martínez, B. (2011). Educación inclusiva y cambio escolar. *Revista iberoamericana de educación*, 55, 85-105.
- Fernández, A. eta Darretxe, L. (2011). La escuela inclusiva: realidad intercultural. *Revista Iberoamericana de educación*, 55(2), 1-11.

- García, J. (2008). Aulas inclusivas. *Bordón. Revista de pedagogía*, 60(4), 89-105.
- Gimenez, C. (2003). Pluralismo, multiculturalismo e interculturalidad. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 8, 11-20.
- Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan. (Sareko argitalpena: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_curricul/adjuntos/14b\\_curriculum/320002e\\_Pub\\_EJ\\_curriculum\\_basica\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_curricul/adjuntos/14b_curriculum/320002e_Pub_EJ_curriculum_basica_e.pdf); kontsulta eguna: 2018/03/20)
- Jiménez, M. (2008). Aproximación teórica de la exclusión social: complejidad e imprecisión del término. Consecuencias para el ámbito educativo. *Estudios pedagógicos*, 34(1), 173-186.
- Jiménez, M. eta Taberner, J. (2009). Exclusión social y exclusión educativa como fracasos. Conceptos y líneas para su comprensión e investigación. Profesorado. *Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 13(3), 11-49.
- Lazaro, I. (2013). *Análisis de los factores de exclusión social; propuesta de un sistema de información sobre la infancia en exclusión*. Madrid. Universidad Pontificia.
- Lopez-Velez, A.L. (2018). *La escuela inclusiva. El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- Parrilla, Á. (2002). Acerca del origen y sentido de la educación inclusiva. *Revista de educación*, 3(27), 11-29.
- Ríos, M. (2005). *La Educación Física como componente socializador en la inclusión del alumnado con discapacidad motriz. Estudio de casos en la etapa de educación primaria*. Tesis Doctoral. Barcelona: Universidad de Barcelona. <http://www.tesisenxarxa.net/TDX-0104106-085807/>.
- Ríos, M. (2013). La inclusión en el área de Educación Física en España. Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Agora para la educación física y el deporte*, 9, 83-114.
- Santos, M. A., Cernada, F. X. eta Lorenzo, M. D. M. (2014). La inclusión educativa de la inmigración y la formación intercultural del profesorado. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 17(2), 137.
- Tierra, J. eta Castillo, J. (2010). Educación física en alumnos con necesidades educativas especiales. *Wanceulen: Educación Física Digital*, 5, 4.

- Toboso, M., Ferreira, M. A., Díaz, E., Fernández-Cid, M., Villa, N. eta Concha, G. D. E. (2013). Sobre la educación inclusiva en España: políticas y prácticas. *Intersticios: Revista sociológica de pensamiento crítico*, 6(1), 279-296.
- UNESCO (2009). Defining an Inclusive Education Agenda: Reflections around the 48th session of the International Conference on Education. Geneva: International.
- Walt Disney Animation Studios (ekoizlea). Chris Buck eta Jennifer Lee (zuzendariak). (2013). Frozen (Filma). Eskuragarri: <http://movies.disney.com/frozen/>. Ameriketako Estatu Batuak.



# 8.ERANSKINAK

## 8.1. SAIOAK (ARIKETA FITXA)

### ✓ 1.saioa



Honako jolasak egingo ditugu:

<p><b>1.Zaldun baloiduna</b></p> <p><b>2.I love</b></p> <p><b>3.Multzokatzea</b></p>
--

### ✓ 2.saioa

**1. AURKEZPENA:** Inklusioaren nondik norakoak ezagutu; zer esan nahi duen, bazterkeriarekiko lotura, egoerak aurkeztu, kausak etab.

**A) Bazterkeria/Inklusioa:** Ondorengo taula honetan azpian dauden terminoak sailkatu behar ditugu. Termino horiek bazterkeria edo inklusioarekin lotzen dira.

INKLUSIOA	BAZTERKERIA
	

1-Laguntzea, 2-diskriminazioa, 3-etiketak jartzea, 4-errespetua, 5-aukera berdintasuna, 6-talde kohesioa, 7-ez onartzea, 8-oztopoak jarri, 9-dibertsitatea, 10- baloratzen jakitea, 11-gutxiestea.

**B) Badakigu jada bazterkeriak zer esan nahi duen baina honen arrazoiak ere ba al dakizkigu? Zerrendatu dakizkigunak.**

-Generoagatik (mutil-neska)	-	-
-	-	-
-	-	-
-	-	-
-	-	-

B.1.) Talde bakoitzak oraintxe zerrendatutako arrazoi bat aukeratu eta egoera bat deskribatu.

**C) Testu irakurketa: Egoera erreal baten kontakizuna irakurriko dugu.**

-Zer pentsatzen dugu honen inguruan?

-Nola sentituko dira bazterkeria jasaten dutenak? Beraien azalean sartzen gara?

-Zer egin genezake denak bat izateko?

-Badakigu bakoitzari zer gustatzen zaion?

**D) Elkar ezagutza: Bakoitzaren alderdi positiboak ezagutarazten saiatuko gara.**

✓ **3.Saioa**

**2. EGOERA ERREALA ETA GARAPENA:** Frozen pelikulan oinarrituta eta bertako eszena batzuk aukeratuta bazterkeria/inklusioaren arazoa identifikatu eta honen inguruko eraginak eta ondorioak aztertu eta hausnartu.


**A) Lehenengo bideo sekuentzia jarri ondoren, erantzun galdera hauei.**




-Zein bazterkeria ikusi duzue? Azaldu egoera.

-Ondo egiten dute gurasoek mundu guztiari berezitasuna ezkutatzeko? Zuek modu berean jardungo zenuten?

**B) Bigarren bideo sekuentzia ikusita, nabaria da bi ahizpen arteko egoera kontrajarriak. Deskribatu Elsa eta Anaren egoerak.**



Elsa:



Ana:

-Zergatik horrelako egoera ezberdinak?

-Noizbait gertatu zaizue zerbait ezkutatu beharra aparte ez sentitzeko?

**C) Hirugarren bideo sekuentzia ikusi eta gero, hainbat galdera.**



-Elsak pertsona berdina izaten jarraitzen badu, zergatik lehen denak oso atsegin eta jator berarekin eta gero baztertu eta gaiztotzat hartu?

-Elsak zerbait txarrik egin al du bat-batean denak bere kontra jartzeko?

-Zuek uste duzue jauregiko gonbidatuek Elsaren egoera ezagutzen dutela? Norbait geratu zaio hitz egiten zer pasatzen zaion?

-Orduan, zergatik Elsaren egoera jakin gabe baztertzen dute?

**D) Laugarren bideo sekuentzia. Pelikulan bada abesti bat oso ezaguna, abestiko letra aztertu eta gero bere egoera identifikatu dezakegu. Ondorengo hitzak esaten ditu.**



**Jakin egin behar dute**

**Ez du inporta**

**Beldurrik gabe esan**

**Ez dago ezer galtzeko**

**Libre naiz**

**Mugak gaindituko ditut**

**Ez dago araurik jada niretzat**

**Ez dut berriz negarrik egingo**

-Nola sentitzen da Elsa bere berezitasuna guztiek dakitenean? Arazo guztia konpondu da?


-Zuek uste duzue damututa dagoela hasieratik bere egoera ez esateagatik?

-Nola konpondu genezake gizarteak baztertzearen arazo hau?

✓ 4. Saioa

**3. EGOERAREN KONPONBIDEA ETA INKLUSIOA:** Frozen pelikulan oinarrিতuta eta bertako eszena batzuk aukeratuta bazterkeria/inklusioren arazoa identifikatu eta honen inguruko eraginak eta ondorioak aztertu ostean eman geniezaiokeen konponbideen inguruan hausnartuko dugu.

**A) Bosgarren bideo sekuentzia ikusi dugu, bertan bi konponbide mota ageri dira, bat Ana eta bere laguntxoena eta bestea jauregiko soldadu eta gizartearena orokorrean. Deskribatu aukeratuko zenuketen konponbidea.**



Ana:

Gizartea:

-Zergatik Elsak ez du nahi bere ahizpa Anarekin joaterik?

-Nola eman diezaiokegu buelta egoera honi, hau da, familiaren onarpena badaukagula jakinda, nola lortu genezake gizartearen onarpena?

**B) Seigarren bideo sekuentzian egoerari buelta ematen zaio. Zer arrazoiengatik ematen zaio buelta egoerari eta Elsa onartua da?**



-Zuek uste duzue gizarte honen akats nagusia egoera jakin gabe baztertzea dela?

-Beraz, nola lortu dezakegu pertsona baten inklusioa? Esan hiru urrats eman beharrekoak.

**C) Frozeneko istorioa ikusita nola aldatuko zenuke istorioa Elsa baztertuta ez geratzeko eta hasieratik zoriontsu izateko?**